



ARGIA



ARROZTEGIAREN AURKAKO

AKANPADA BAZTANEN

“Gelditu
dezakegu,
gelditu
behar dugu,
eta geldituko
dugu”

22-26. orriak

#2.730 | 2021 / 05 / 02 | 3,90 €



**“Xorroxin Irratian
erakutsi dugu euskaraz
bizi daitekeela hemen”**

12 | JOSETXO APEZETXEA



**Indarkeriaren
Eskailera ikasleekin
aztertzen**

28 | GENEROA



LARRUN #262
**BBVaren
historia beltza**

2. argitaraldia

Bizitzaren ederra loratu dadila

Jakoba Errekondo

Loreak etxeko poza dira. Zaintzen asmatzeko beharrezkoena, lore bakoitza ezagutzea da. Liburu honek hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu: zein landare aukeratu txoko bakoitzerako, gaixotasunei nola aurre egin, ureztaketa, ongari naturalak nola egin eta nola birlandatu.



25€

Orri kop.: 248

BIZI BARATZEA

ARGIA

EROSTEKO: argia.eus/azoka 943 37 15 45



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
DABID SANCHEZ / EKINKLIK

Iritziak

- 17 | IKER IRAOLA
- 18 | ANE ABLANEDO
- 19 | IVÁN GIMÉNEZ
- 19 | ITZIAR BARDAJI
- 20 | ARKAITZ ZARRAGA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 27 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
MARIA LUZ MANGADO
- 54 | BERANDUEGI



AITOR ASPURU

32 | **CORSINO VELA**

Aitor Aspuru elkarrizketatu du kapitalismoari buruzko trilogia osatu duen autoreak. Hamaika gai ekonomiko jorratu dituzte, besteak beste, ongizate estatuaren azterketa kritikoa. Krisitik ateratzea baino beharrezkoagoa dela kapitalismotik ateratzea azaldu du eta horretarako esperientzia komunitarioetara jotzea dela gakoa.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Transgenikoak eta glifosatoa debekatu dituen Mexiko jomugan du Monsanto erosi zuen Bayerrek

Jenofa Berhokoirigoin

12 | PERTSONAIA | JOSETXO APEZETXEA

“40 urtean erakutsi dugu euskaraz bizi daitekeela hemen”

Reyes Ilintxeta

22 | AROZTEGIAREN AURKAKO AKANPADA

Bizitzaren alde, erresistentzia aktibatuta da Baztanen

Garazi Zabaleta

28 | HEZKUNTZA

Bikote harreman toxikoak azaleratzen dituen eskailera

Mikel Garcia

36 | EUSKARA

Amerikan ikasitakoari ginga jartzen Lazkaoko Maizpide euskaltegian

Miel A. Elustondo

44 | KULTURA | JORGE HERRALDE

“Antzinako totem bat naiz”

Aritz Galarraga

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Ixone Arana, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Garcia, Oihane Arretxea, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia, Eneko Arzuaga

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

lametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikokoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enpreekin batera:

aniza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametza
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Albo-kalteak?

Farmazeutiken industriak –diru publikoarekin ordaindutako ikerketen emaitzak konpartitzen ez dituzten horiek– kategorikoki azpimarratu du txertoak %100 seguruak direla eta talde immunitatea sortuko dutela, gobernuen laguntzarekin. Jakitun baziren ere, txertoek ere, medikamentu guztiek bezalaxe, bigarren mailako ondorioak sortzen dituztela. Eta milioika lagun txertatu ostean, ezinbestean, kasu larriak –heriotzak tarteko– eragin(go) dituzte. Azken kasuetako bat izan daiteke, tronbosiak jota, Aitzoaingo kuartelean hil den militarra. Alemania ugazabak hala erabaki ostean, hainbat herritan AstraZenecaren txertaketa bertan behera utzi dute 60 urtetik beherako pertsonen artean. Badaezpada ere. Hara zenbait agintari eta hedabideren koktel mikatza: ataka honetatik ateratzeko konponbide bakartzat txertoa egunero jainkotu, txertoekiko beldurra eta mesfidantza zabaldu bitartean. Neofaxismo indibidualista trumpzalea pozik egoteko modukoa.





ose vial ()
uscular us
xt-S [rec
-19 Vaccin
on
-19 Vacc



ESPETXETIK IHES EGITEA
EZINEZKOA ZIRUDIENEAN,
LORTU ETA EUSKAL HERRITIK
ALDE EGIN BEHAR IZAN ZUEN.
IA 40 URTE BERANDUAGO,
PANDEMIA BATEK EUSKAL
HERRIAN SARTZEA IA
EZINEZKOA EGITEN DUENEAN,
EUSKAL HERRIRA ITZULI
DA. HORI DA MARKA! ONGI
ETORRI, #SARRI

@Exprai



LAGUN IZOZTUA ITACARA
IRITSI DA. ONGI ETORRI, SARRI!

@anarirena



DENBORAK PERTSONA
ASKO JATEN DU. APUR BAT
ARRAROA DA SOBREBIBIENTE
SENTSAZIO HAU

Joseba Sarrionandia
ANBOTO.ORG



GAUR EUSKALDUN DENAK
GARA APUR BAT LIBREAGOAK.
BIZITZA EZ DA HUSKERIA,
EDAN ASE ARTE BERETIK,
BIZITZA DA HAUNDIENA

@desertorea



SARRIONANDIA ITZULI DEN
HONETAN, OHARKABEAN
PASA EZ DADIN, GOGORATU
AGUSTIN AZKARATE ERE
GAUR ITZULI DELA EUSKAL
HERRIRA, HAINBESTE URTE
IHESLARI IBILI ONDOREN

@inagurru



BASCONIA.COM

Unibertsitate pribatu polemikoa Gasteizen

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Euneiz (European University Gasteiz) unibertsitateari bidea irekitzen dion lege -proiektua onartu du Lakuak martxoan. Legebiltzarrak berau berrestea falta da, baina ez dirudi horretarako arazorik izango denik. Bi fakultate izango ditu unibertsitateak, Osasun Zientziak eta Teknologia Berriak, eta besteak beste fisioterapia, kirolaren zientziak eta eduki digitalak sortzeko graduak eskainiko ditu, dagoeneko unibertsitate publikoak eskaintzen dituenak. Webgunea gaztelaniaz eta ingelesez baino ez dago.

Josean Kerejeta Baskonia eta Deportivo Alavés taldeetako akziodun nagusiak, Girona eta Tarragonako unibertsitate pribatuen laguntzaz sustaturiko proiektua da, irailan atek zabaldu nahi dituen eta beraien hitzetan berrikuntza ekarriko omen duena, baina Nekane Balluerka EHUKo errektore zenak berak argi esan zuen iaz, ekimenaren berri eman zenean: proiektuak ez du zentzurik.

Steilas sindikatuak ere gogor kritikatu du egitasmoa: pandemiak zerbitzu publikoen –eta horiek zaintzearen– garrantzia erakutsi digun garaiotan, zer eta unibertsitate pribatua sustatuko dute. “Unibertsitate pribatu gehienentzako, negozioa egitera dator, eskaintza falta dagoela aitzakia hartuta; baliabide eta fabore publikoak jasoko dituen bitartean, unibertsitate publikoari lehia egingo dio eta gero eta gehiago ahulduko du EHU, zeinak gero eta finantzazio eskasagoa duen”.

“UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN DEFENTSAN”

“Unibertsitate publikoaren defentsan”, apirilaren 26an elkarretaratzea egin dute Gasteizko Eusko Legebiltzarraren aurrean, STEILAS eta ESK sindikatuek deituta. Euneiz “proiektu elitista” dela azpimarratu dute, negozioa egitea xede duena eta beharrezkoa ez dena, eta Jaurlearitzak “alfonbra gorria” jarri izana salatu dute.

Sindikatuak nabarmendu dute proiektuak Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren balorazio negatiboa jaso duela. Eta kezka gehiago mahaigaineratu dituzte: “Zer nolako lan-baldintzak izango dituzte bertan arituko diren irakasleek? Privatizazioa eta prekarietatea... gutxi batzuen onurarako perfektua den binomioa da”.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Artisau



ARITZ GALARRAGA

Denborarekin konturatu naiz jarraitzen ditudan idazle batzuk, fruituoz irakurtzeraino, beren burua kokatzen dutela, ez artistaren lekuan, baizik eta artisauarenean. Lehen kolpean, planteamenduak erakartzen nau, idazleen ohiko harrokeriaren aldean umiltasuna adierazten baitu –baldin eta ez bada umiltasun faltsua; orduan erakutsiko luke idazleen ohiko harrokeria-. Berriki irakurri diot hori Merce Ibarz idazleari, *Triptic de la terra* narrazio bildumaren kari. Artisau, hartara, are liburuaren izenburuari erreferentzia eginez, laborari, hitzen laborari. Baina, topikoaz gaindi, zer demontre da artisau izate hori?

Guri laguntzeko dago Richard Sennett –zeina Jorge Herralde editoreak baztertu egin zuen hasiera batean, 1977an: “sentitzen dut esatea zure testuen publikazioa ez zaigula posible”; gero, 2000tik hona, guztira zortzi liburu publikatzeko. Ez etsi beraz, idazle saiatu maiteok-. Sennettek dio artisauak gauzak besterik gabe ondo egiteko giza bulkada bati erantzuten diola, trebetasunez, konpromisoz, zentzuz, izan programatzaile informatiko, mediku edota, kontxo, artista. Eginbide bat iradokitzen du: arotz edo musikari batek hamar mila ordu behar izaten ditu maisutasunera iristeko, lau zapabost orduko saioak egunero, bost edo sei urtean zehar. Tentazioa legoke artisaua gaurko abiaduraren aurkako erresistente gisa ikusteko, orduan, haize freskoa garai turbokapitalista hauetan, zeinean handiagoa izan pilatu duzun esperientzia, gutxiago balio duzun. Artisauaren ekinak ez luke zerikusirik biziraute soilarekin, ezpada kulturak lanari gehitzen dion balioarekin. Eta egia da bizitza pasa dezakezula gehiegi busti gabe, baina artisauak sinbolizatuko luke giza-kondizio partikular bat, egiten duen horretan inplikatu eta kontzentratzen den pertsonarena. Sennett jarraiki, beraz, nire burua artisau aldarrikatuko nuke, artisauarentzat hori egitea ere harrokeria ariketa bat ez balitz. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

ITZULI IZAN BALITZ ZER?



“CABACASEN GURASOAK BIGARREN MAILAKO BIKTIMA SENTITZEN DIRA”

JONE GOIRIZELAIA, CABACAS AUZIAN GURASOEN ABOKATUA

Iñigo Cabacas hiltzeagatik kondenatutako Ertzaintzako agenteari ezarri zioten bi urteko kartzela zigorra bertan behera uztea erabaki du Bizkaiko Auzitegiak. Goirizelaia abokatuak adierazi duenez, “Cabacasen gurasoek ez dute epailearen erabakia ulertu, bigarren mailako biktima sentitzen dira, eta minduta daude erabakiarekin”. Lau urtez kargua ez betetzeko ertzainari ezarritako kondena mantendu dadila eskatu du familiak. **2021/04/20**



EKONOMIAREN TALAIAN

Klase-borroka, gaur bizirik



JUAN MARI ARREGI

A hazteko edo manipulatzeko interres asko dauden arren, klaseen arteko borroka gure gizartearen mantentzen da. Maiatzaren 1eko data historikoa iristear denez, komeni da gogoratzea. 135 urte igaro dira 1886an zortzi orduko lanaldia defendatzen zuen langile talde bat hil zutenetik.

Langile borroka solidarioek lortu duten arren beren aldarrikapenetako batzuk betetzea, gaur egun, beste larru batekin baina indarkeria bera erabiliz, milaka langileren odola xurgatzen jarraitzen duen Kapitala aurkitzen dugu. Hemen, Euskal Herrian, azken hilabete hauetan hainbat enpresatako eta, bereziki, Tubacexeko langileak ikusten ari gara mobilizazioetan, bi hilabete baino gehiago greban. Ezkerraldean manifestazioak egin dituzte desindustrializazioaren aurka. Gazteen langabezia %50 ingurukoa da. Banketxeek enplegua ezabatzen jarraitzen dute. Bitartean, multinazionalak uzten diegu gure enpresa arakastatsuenak irenstea, Euskaltel kasu, diru publikoarekin sortu eta mantendu izan dena.

Testuinguru horretan lotsagarria da Iñaki Garcíñuno Cebek patronaleko presidenteari entzutea “sindikatuaren presioak soldata igoerak eragin” dituenaz, orain “enpleguaren aurka” doazela. Eureri buruz ez du ezer esaten, izan ere, Ibex35eko enpresa kontseilariak diren heinean, milioika euro irabazten dituzte soldatetan, dietetan eta bonuetan.

Klase-borroka ez da kontzeptu zaharkitua, batzuek uste duten bezala. Gure artean dago, bizirik, eta langabezia, deslokalizazioak, prekarietatea eta gizarte-bazterketa eragiten ditu. 1886an AEBetan, 1931n Ategorrietan eta 1976an Gasteizen langileen heriotza eragin zuen klase-borroka bera da. Edo ehunka langile amiantoz hiltzea ekarri duena. Sistema kapitalistaren ondorioak dira, klase-borrokaren ondorioak! Gaur, atzo bezala. ●

ANALISIA



XABIER LETONA

Kaka burutik behera

XABIER LETONA BITERI

Kaka buruan nork egin zion jakiteko etxaldeko animalien artean ikerketa abiarazi zuen satorrak. “Eta zuk nola egiten duzu?”, galdetu zion behiari. “Nik horrela”, *plaut* utzi zuen berea zelaian zabal-zabal, bero-bero. Eta satorra biziki poztu zen ez zelako behia izan buru gainean zuen oparia utzi ziona. Tematsu, ordea, satorrak ikertzen jarraitu zuen, azkenean buruko hura nork egin zion asmatu zuen arte.

Nafarroako energia berriztagarrien etorkizunean murgildu naiz egunotan eta, etiketa eta irudi xarmagarrien gainera, kaka ugari ageri da hor ere. Enpresa mordoxka dago –Nafarroan orain hamazazpi– bere gorotz opila mendi, soro eta herritarren buru gainean utzi nahian, hemen parke eoliko itxuran eta han parke fotovoltaiko moldean. Nafarroan gisa bereko ia 90 parke daude egun, lurraldea elektrizitate esportatzaile bihurtzeraino. Ez, ez da Nafarroak behar duen energia baino gehiago sortzen duela, ezta hurrik ere; baina bai orain kontsumi dezakeen energia elektrikoa baino gehiago ekoizten duela eta, ondorioz, soberakinak saldu egiten direla. Nafarroak urtean kontsumitzen duen energia iturri guztien %20 bakarrik da elektrikoa –2019ko datuetan– eta, hori bai, dena berriztagarria.

Erresuma zaharrean orain dauden ia 90 parke horien gisako 60tik gora proiektu tramitazio prozesuan dira Nafarroako Gobernuan, egun ekoizten den energia berriztagarria bikoizteko asmoarekin. Etorriko da garaia, baina gaur egun ezin dugu energia hori guztia Nafarroan erabili. Orduan norentzat da? Saltzeko, norbait edo norbaitzuk aberastu daitezten. Dirua dabil barra-barra energia berriztagarrien sektorean eta gehiago ere espero da Europar Batasuneko Next Generation funtsen jarioan. Burbuila handitzen den neurri berean haziko da txikizkoa ere, norbaitek oztoporik jartzen ez badie.

Eta herritarrak protestan, kaka buru gainera kendu nahian eta marmotaren egunean harrapatuta, bereziki agintarien esanak entzunda. Manu Ayerdi Foru Gobernuako kontseilari ohia: “Prest egon behar dugu ingurumen kalteren bat onartzeko”. Enpresetako promotoreak fin-fin dabilta han-hemengo herrixketan, euren proiektu berdeak bikain salduz, maleta diru-bete, lur-jabe txikien eta batek daki beste noren patrikak berotuz, herri txikietako lasaitasun inoiz baino prezia-tuagoa birrinduz. Alegazio eta ingurumen txosten garai bete datur, baina batzuetan pentsa daiteke foru instituzio nagusienak herritarren zaintzan jartzea, azeria oiloak zaintzen jartzea modukoa dela. Satorra bezain tematsu jarraitzea, horra bizitzaren aldeko herri txikietako herritarren patua. ●

Bi migratzailek beren buruaz beste egin dute

ARGIA

Aste berean, eritrear jatorriko gazte baten gorpua aurkitu dute Bidasoa ibaiaren bazterrean, urkatuta; Eusko Jaurlaritzaren pisu batean zegoen 18 urteko marokoarrak bere buruaz beste egin du; eta Hendaian migratzaileentzako atxikitze zentroan 63 egun daraman gizon batek ezpainak josi ditu.

POLITIKA ARRAZISTEN ONDORIO

Eritreako gazte baten gorpua aurkitu zuten apirilaren 18an, Irunen. Bidean zegoen migratzailea zela uste du Irungo Harrera Sareak, eta elkarretaratzea egin zuten: “Ez dugu nahi identifikatu gabeko gorpu bat izatea, Europako hilobi anonimo batean amaituko duena”. Politika arrazisten ondorio dela salatu dute.

18 URTEKO MAROKOARRA

Bestalde, Donostian Jaurlaritzaren tutoretzapean dagoen etxebizitza batean, migratzaile batek bere buruaz beste egin du. Hezitzaileek aurkitu zuten logelan. Jatorriz marokorra, abendutik bizi zen etxe horretan. Gorpua Marokora aberriratu dute.

EZPAINAK JOSITA GOSE GREBAN

Hendaiako atxikitze zentroan dagoen gizon jatorriz tunisiar bati prefeturak ukatu egin dio bizileku baimenaren agiria eta kanporatu egingo dute. Protesta moduan, ezpainak josi eta gose greba abiatu du.



ELA

EAEKO SEKTORE PUBLIKOA, GREBAN


EAE. ELA, LAB, STEILAS, ESK, CCOO eta SATSE sindikatuek deituta, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan greba egin dute apirilaren 22an sektore publikoko milaka langilek. Sektorean enplegua sortu eta “konsolidatzea” eskatzeko deitu dute greba, izan ere behin behinekotasun tasa ia %40ra iristen da kasu askotan. “Behin-behinekotasuna sektore publikoan eskandalu bat da”, salatu dute.

EUSKARA

%15

aritu ziren
DBH2ko

ikasleak euskaraz Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxeetako jolastokian, eta %26 ikasgelan, 2017 urtean. Eskoletako umeen euskara giroa aztertzen duen Arrue ikerketaren datuetako bat da. Ikerketak bi urtean behin egiten dira eta 2017an neurturiko ia erabilera guztiak 2015ekoak baino baxuagoak dira. Alegia, euskararen erabilerak atzerapausoa eman du eskola eremuetan.



ATXILOKETAK. Apirilaren 20an Espainiako Poliziak LABeko sei ordezkari atxilotu zituen. 24 ordu beranduago, epailearen aurrean deklaratu gabe atera ziren kalera, epaileak ez baitzuen ikusi horretarako beharrik. Nafarroako garbiketa sektoreko protesten harira atxilotu zituzten.



COVID-19. Ikerketa baten arabera, ZIUn sartu dituzten gaixoetako askok sistema immunitarioko interferon proteinaren aurkako antigorputzak dituzte. Antigorputz horiek detektatzeko odol analisisa eginda aurreikusiko litzateke nortzuk duten arriskurik handiena larri gaixotzeko.



HIZKUNTZA GUTXITUEN LEGEA. Hizkuntza Ondarea Babesteari eta Sustatzeari buruzko Frantziako Legearen kontra helegitea jarri dute azken orduan. 60 diputatuk baino gehiagok jarri dute helegitea eta Konstituzio Kontseiluak bi hilabeteko epea du erabakia hartzeko.

TRANSGENIKOAK ETA GLIFOSATOA DEBEKATU DITUEN MEXIKO JOMUGAN DU MONSANTO EROSI ZUEN BAYERREK

“Arto indigena babesteko” eta “elikadura burujabetzaren alde” hartu zuen Mexikoko Gobernuak arto transgenikoen ekoizpena eta inportazioa baita glifosatoa deitu herbizida ere debekatzeko erabakia 2020ko abenduaren 31n. Orduz geroztik, atzera eginarazteko presioak ez dira gutxitu agroindustriako lobbyen eta AEBetako Estatu Federalaren partetik. Besteak beste, debeku hauek merkataritza librearen aldeko itunen kontra doazela diote agroindustriako multinazional zein ordezkariak. Tartean dugu bistan da Bayer, 2018an 63 bilioi dolarren truke Monsanto erosi zuen talde farmazeutikoa.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Ingurumen osasuntsu baten alde eta elikadura-sistema justu, iraunkor eta osasuntsu baterantz doan urratsa”, *Sin maíz no hay país* (“Artorik gabe, herri-rik ez”) kolektiboaren hitzetan. Parean, Proccyt Mexikoko agroindustriaren ordezkariaren bertsioa: “Erabateko bidegabekeri oportunistak, Mexikoko landa-eremu guztian eragiteaz gain, prezioen egonkortasuna eta elikagai estrategiko baten eskuragarritasuna arriskuan jartzzen dituen”.

Biak dira 2020ko abenduaren 31n Andres Manuel Lopez Obrador Mexikoko presidentek hartu dekretuaz mintzo: arto transgenikoen ekoizpena zein inportazioa eta glifosatoaren erabilpena debekatu ditu. Poliki-poliki transgenikoen erabilpenerako baimenak balio gabetuko edo errefusatuko dituzte, inportazioak ere gradualki murriztuz, hemendik hiru urtera halakorik ez gehiago erabiltzeko gisan. Glifosatoa ere debekaturik dute 2024rako, hiru urteko trantsizio fase honetan alternatibak garatzeko tartea eskainiz. “Arto indigena babesteko neurria” eta “elikadura burujabetzara heltzeko bidea” dela adierazi du bere aldetik gobernuak.

Artoaren sehaska den herri horretan transgenikoen kontra urte luzeetan mobilizaturikoen poza eragin badu erabakia, agroindustriaren kexua ere piztu du. Legea pasa arren, gobernuak presionatzeko esku artean duten guztia bideratzen dabilta sektoreko lobbyak. Horren adibide argia Victor Toledo Ingurumen

ministrotik irailean dimititu behar izana. Hortik gutira, *La Jornada* komunikabidean Toledok plazaraturiko *La guerra del glifosato: actores y drama* (“Glifosatoaren gerra: eragileak eta drama”) iritzi-artikuluaren ondokoa irakurri zitekeen: “Ulertu behar da enpresa boteretsu honek zientzialariek, teknikariek, publizistek, agente komertzialek, lobbyistek, espioiek eta promotorek osaturiko armada duela, eta herrialde bakoitzean ikertzaile, akademiko, enpresa, ekoizle, kazetari, legegile eta gobernu-kideen kooptazio-kanpaina oso eraginkorrak bideratzen dituela”. Monsanto erosi zuen Bayer multinazionalaz ari da, hazi transgenikoen eta glifosatoaren jabe duguna –biak elkar estuki loturik ditugu, usu herbizida jaso eta bizirik iraun ahal izateko dituztelako haziak genetikoki eraldaturik–.

AEB-EN LOBBY BORTITZA

The Guardian komunikabideak eman du lobby lan horren berri, AEBetako Gobernu Federalak bideratu presioan zentratuz: “Gero eta argiago agertzen zaigu pestiziden industriak AEBetako Gobernuak erabiltzen duela, batetik, bere xedeak nazioartean bultzatzeko eta bestetik, elikadura burujabetzaren alde herriek bideratu ahaleginak zapuzteko”. Nathan Donley AEBetako biologia bioaniztasunaren aldeko zentroko kidearen hitzak dira. Ikusirik merkatu oparora dutela Mexikorekilakoa, sekulako presioa bideratzen dabilta azken hilabeteetan –eta Joe Bidenen gobernu berriak ez du bestelako

posturarik erakutsi, oraingoz behintzat–.

Urtez urte burujabe izateari utzi eta inportaturiko arto bolumena emendatu du Mexikok: 2019an 15,5 milioi tona arto inportatzen zituen, 1994an 2,7 milioi tona zituelarik sarrarazten, eta ekoizpena ere 6 milioi tonatik 27 milioi tonara emendatu zuen –niz abeltzaintza industrialera zein bioerregaietara bideratzeko–. Inportaturikoaren gehiengo handia transgenikoa eta AEBetako dute. Hastapenean abeltzaintzarako erabiltzen zutena pixkanaka jakien industrian ere sartu dute, garestiagoo zaielako bertakoa erostea: diruz lagundua izanki, ekoizpen-kostua baino apalago saldu dezakete AEBek, eta NAFTA Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Itunak aduana zergak ere kendurik dituela, konkurrentzia desleialari aurre egiteko babes neurriak ez du Mexikok. 1994an izenpeturiko NAFTA “hondagarria” izan da mexikar laborarientzat, artoa oinarri zuen elikadura autonomia galdurik, merkatu librearen menpeko bihurtu dituelako.

Eskerrak, herritarrek bideratu erresistentziak moratoria bat ondorioztatu zuela 1998an, transgenikoen ekoizpena debekatu. 2009a arte iraun zuen, urte horretan Monsantoaren presiopean amore eman zuelako Felipe Calderonen gobernuak, esperimenterako baimenak banatu. 2007an 300 egituren artean osaturiko *Sin maíz no hay país* kolektiboak berriz ere transgenikoen debekua bideratzea lortu zuen 2013an –2020ko abenduaren 31ko dekretuak berretsia,



MERKATU LIBREAREN MENPE.

ARTOAREN SEHASKA IZANDA ERE, ZEREAL HONEN INPORTAZIOEN MENPE DA MEXIKO, ETA GAUR AEB-ETAKO ARTO TRANSGENIKOA ERE DU INPORTATZEN, BESTEAK BESTE, ABELTZAINZA INDUSTRIALA BERMATZEKO. ELIKADURA BURUJABETZAREN ALDEKO ETA TRANSGENIKOEN KONTRAKO MUGIMENDUA 90EKO HAMARKADAN ABIATU ZUTEN ETA GAUR EGUN ORAINDIK INDARTSU DABIL.

eta inportazioei ere zabaldutakoa-.

Merkataritza librerako hitzarmenei atxikirik segitzen du agroindustriak. NAFTAren ordezko, 2018ko ACEUM merkataritza librerako hitzarmena dute aldi honetan baliatzekoa: "ACEUMen baitan Mexikok dauzkan betekizunekin bateraezinak dira transgenikoen eta glifosatoaren debekua", irakurri daiteke bioteknologiaren sektoreko CropLife lobbyak iazko martxoan AEBetako komertzioaren ardura duen USTR egiturari igorritako gutunean. Hortik gutxira, maiatzean, USTRen ordezkariek zion gutuna bidali Mexikoko Ekonomia ministroari debekuak "bi herrien arteko harremanen txartzea" eraginen zuela ohartarazteko. ACEUM hitzarmena esku artean, salaketa jarri dezake Mexikoko CNA Nekazaritza eta Abeltzaintzako Kontseilu Nazionalak, presidentearen dekretua merkataritza

askearentzat oztopo dela argudiatuz. Ez litzateke harrigarria, jakinik CNAREN kideen artean dela Bayer. Gainera, gobernuaren baitan ere dituzte aliatuak: Nekazaritza ministroa, Presidentearen kontseilari juridikoa edota Presidentetza Kabineteko buru ohia, denak dira agroindustriaren ardura eta interesekin.

GLIFOSATOA, NEKEZ DEBEKATU DAITEKEEN PESTIZIDA

Baina transgenikoez gain, glifosatoaren debekua zaie ezinjasana. Munduko Osasun Erakundeak herbizida hau "minbizi sortzaile probable" sailkatu zuen 2015ean eta geroztik azaleratzen dabilta herbizida honen desmasiak. Bayerren kontrako auziak ere abiatuak dira munduko hamaika txokotan. Sydneygo Unibertsitateko zientifiko batzuk *Science of the Total Environment* aldiz-

karian iaz publikaturiko munduko mapak errealitate kezkarri honen berri ematen digu: laborantzarako baliaturiko lurren lautik hiruak glifosatoarekin tratatuak dira -Europako mendebaldea, Brasil, Argentina, baita Txina eta Indonesiako eskualde batzuk dira gehienik hunkiak, hots, monokulturaren eta transgenikoaren bereziturikoak-.

Azken urteetan gutxi batzuk dute herbezida debekatu: Austriak, Luxenburgok, Togok, Indiako estatu batzuk, Vietnamek... Baina debekatzeko urratsari lotu arren, presiopean atzera egin izanak gehiago dira: Europar Batasuna, Sri Lanka, Thailandia, Salvador, Argentina, eta abar. Mexikori neke izanen zaio amore ez ematea, eta herritarren babes eta presioa lagungarri izan behar litzukete gobernuaren baitatik elikadura burujabetza osasuntsuaren alde dabiltzanek. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

NINA MÛR
eyewear

Egurrezkoak
Eskuz landuak banan-banan
Jasangarriak
Arinak eta erresistenteak
Kalitate handiko eguzki-lenteak



Hernani 23, 20004 Donostia · 943 420 624 · zinkunegioptika.com

Jose txo Apezetxea

“BADUGULE, BADUGULE BERTZE ENTZULE”



40 URTEAN ERAKUTSI DUGU EUSKARAZ BIZI DAITEKEELA HEMEN



Xorroxin Irratia Nafarroako euskarazko irratirik beteranoena da. 1981ean Erratzuko eskolan okupatutako areto batetik zenbait gaztek lehen saioa aineratu zuten eta egun Baztan, Bortziriak, Malerreka, Urdazubi eta Zugarramurdi eskualdean aditzen da. 40 urte uhinetan eta horietarik ia 30 daramatza mikroaren aitzinean Apezetxeak.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Erratzun, zure herrian sortu zen irratia 1981ean. Nola gogoratzen duzu hori?

Guretako, bertako gaztetxoentzako, sekulako gertaera izan zen hura. Euskaraz zerbait egiteko gogoia zuten Erratzuko eta beste herri batzuetako koadrila bateko gazteak izan ziren sortzaileak. Hemen euskaraz solastatzen zen, aunitz baserri giroan eta herri txikietan, baina Elizondon, errate baterako, erdara zen nagusi. Eta gainera euskara ez zen ongi ikusia. Nolabaiteko mespretxua zioten. Hauek nahi zuten juxtu euskarari nolabaiteko bulkaldia eman eta behar zuen goresmena lortu. Ausartak izan ziren alde horretatik. Jugoslavia ohi horretara egin zuten bidaia bat eta han bururatu omen zitzaizen ideia.

Laurogeigarren hamarkada horretan irratia libreen booma izan zen. Iruñeko irratia batzuekin eta Iparraldeko beste batzuekin harremanetan jarri ziren eta haien medioz Bordeletik ekarri zuten lehen emisorea altxapean, Izpegiko mugatik. Horrela sortu zen irratia Erratzuko eskolako lehen solairuan. Behean eskola zegoen, baina goian areto batzuk hutsik zeuden eta hara sartzeko baimena eskatu zuten. Denborak aurrera egin eta erantzunik ematen ez zieten, San Jose egunean sartzea erabaki zuten. Hala egin zuten, baina ez atetik, leiho batetik baizik. Erdi altxapeka egin zuten eta bertan The Beatlesen *Ob-La-Di, Ob-La-Da* kantu eza-guna aineratu zuten, gerora nolabaiteko ereserki bilakatu zena. Hori dena guretzako arras ikusgarria izan zen.

Irrati libre moduan hasi zen, beraz?

Bai eta zenbait urtez halako moduan aritu ziren, baina denborarekin ikusi zuten proiektuari nolabaiteko sendotasuna eman behar zitzaiola. Horretarako lehen urratsa izan zen inguruko herrietan berriemaileak bilatzea. Hasi erian ia egunero sartzzen ziren, gero bi egunetan behin eta hondarreen asetero, orain egiten dugun bezala. Eta ikusi zuten ere horri jarraipena emateko norbait kontratatu egin behar zela. Lehenbizi Nekane Menta arizkundarra hartu zuten eta ondoren beste batzuk ere pasatu ziren handik. Lehen garai hartan Mari Karmen Irungarai sartu zen, egungo lan taldean jarraitzen duen lankidea.



Jose txo Apezetxea Larrainzar

ERRATZU, 1965



Xorroxin Irratiko esatari beteranoe-tako bat da. Gaztetan hasi zen irrati sortu berriarekin musika kolaborazioak egiten, hala nola hainbat ekimenetan laguntza ematen eta 1992an langile gisa hasi zen *Karakola segi hola* arratsaldeko magazinan. Egun, *Xorrotx eta fin* goizeko saioan ere aritzen da gidari lanetan.

Egoitza aunitzetan ibili zarete, ezta?

Nahiko irrati ibiltaria izan da betidanik. Erratzuko eskolatik atera behar izan zuten maistra batek protesta egin zuelako. Herriko beste toki batean aritu ziren 1985ean Elizondoko Fortenea ostatura joan arte. Ostatuan berean egiten ziren saioak. Oso giro bitxia sortzen zen. Gazte batzuk musika paratzerara joaten ginen. Irratiak bizitasuna ematen zion ostatuari eta alderantziz. Hala izan zen Guardia Zibila sartu eta irrati itxi zuen arte.

Gero hortik Elizondoko beste etxabe batera eraman zuten irrati eta berantago Iruritarara. Hango etxe batean zazpi urte eman zituen. Eta ondoren Elizondora itzuli zen. 80. hamarkadaren amaieran irrati lizentziak banatzeko lehiaketara aurkeztu ziren, baina deus gabe utzi zuten Xorroxin, erranez ez zela ziur ekonomikoki bideragarria zenik. Mobilizazio handiak izan ziren.

Denborarekin erakutsi da gaitasun ekonomikoa eta bestelakoa ere norke zituen egiatan. Xorroxinek aurrera egin du eta eskualdeko lizentzia eskuratu zuen bertze irrati, aldiz, bidean gelditu zen berehala. Seguru aski bestelako arrazoiak izan zituzten beste horiei lizentzia emateko eta guri ez.

Eta noiz iritsi zen baimena?

1998an lortu genuen lizentzia bat Lesakan emititzeko. Han ireki genuen estudio berria udalaren laguntzarekin, baina egoitza nagusiak Elizondon jarraitzen zuen.

Baimenari esker diru-laguntzak eskatzeko aukera zabaldu zitzaigun. Bestalde, Elizondoko eskoletan eta beste lokal batzuetan ibili ondoren ikusi genuen toki finko bat bilatzeko beharra genuela eta horrela 2007an erosi genuen oraingo egoitza. Eta handik puska batera, 2013an, lortu genituen Baztanen eta Beran emititzeko lizentziak.

Zenbat zarete lan taldean?

Sei lagun ari gara orain. Elizondon borts, Mari Karmen Irungarai, Fernando Anbustegi, Marian Iñarrea, Nerea Alzuri eta ni, eta Julen Zelaieta Lesakan.

Zu nola iritsi zinen Xorroxinera?

Sorreran bertan ez nuen parte hartu, 15 bat urte nituelako, baina lekuko izan nintzen. Gainera adin horretan

dena mugitzen zaizu barrutik eta ger-tutik bizi izan nuen guztia. Gero, 19-20 urterekin Fortenean gustuko diskoak jartzen genituen.

Hasmentan gauzak erosteko eta norbait kontratatzeke dirua behar zenez, festetan txozna bat jartzen zen dirua ateratzeko eta hor ere ibiltzen ginen laguntzen. Garai hartan azken urte hauetan baino jende aise gehiago ibiltzen zen herrietako festetan eta dirua ateratzen zen. 1985etik aurrera Erratzun Xorroxin aldeko kontzertuak egiten hasi ginen eta sekulako arrakasta izan zuten. 500 bizilagunetako herri ttar batean La polla, Barrikada, Hertzainak, Zarama, Itoiz... ikustea ikaragarria izan zen.

Egun batean erran zidaten arratsalderako norbait behar zutela gazteen-tzako saio bat egiteko. Nik ez nuen neure burua ikusten, horretarako trebetasun berezia behar delako, eta nik ez dut inoiz izan. Kostatu zitzaidan onartzea, baina bataik eta bertzeak animatuta baietz erran nuen eta hasieran nahiko estu ibili arren, 1992az geroztik hemen ari naiz lanean.

Nolakoa da zuen programazioa?

Antolatzeke era betidanik irrati libre batenaren antzekoa izan da. Hasieratik dena zen boluntarioek egin eta gero jada profesionalak kontratatu ziren, baina lan moldeak antzekoak dira. Gaur egun, errate baterako, zuzendaritzarik gabe jarraitzen dugu. Denek parte hartzen dugu bileretan eta denen artean hartzen ditugu erabakiak. Batzuetan zailagoa ere izan daiteke, baina horrek behartzen gaitu denak hor barruan egotera eta parte hartze handiagoa izatera.

Programazioari dagokionez, duela hiru hamarkada finkatu zen oinarriarekin jarraitzen dugu. Gauza batzuk aldatu dira baina funtsean antzekoa da. Goizean saio bat egiten dugu 8:30etik 14:00etara, *Xorrotx eta fin*. Herriz herriko itzuliak segitzen du izaten bizka hezurra. 35 herri ditugu eskualdean eta egunero bost bat sartzen dira. Herri txikietan zailagoa da berriemaileak aurkitzen, baina nahiko sare sendoa dugu. Nekazaritza kontuak hartzen ditugu hizpide *Ur eta lur* atalean, *Merkatu txikia*-k ere badu arrakasta eta jendea erakartzen du. Gainerakoan elkarrizketak egiten ditugu gaurkotatuna, agenda edota herriko etxeetako aferen inguruan.



Saiatzen gara eskualdeari lehentasuna ematen, baina Euskal Herri mailan interesekoak diren gaiak gure modura lantzen ahalegintzen gara.

Etorkizunari begira zer erronkak dituzue?

Oraingo gazteria nola erakarri. Batzuetan iduritzen zaigu irratia beharbada adin bateko jendearen kontua dela eta gero eta gehiago kostatzen zaigu jende gaztearengana iristea, edo hori uste dugu. Ezin jakin.

2015etik sarean ere aritzen gara *Ttipi-ttapa* aldizkariarekin batera www.erran.eus plataforman. Eskualdeko bi komunikabideak elkarrekin aritzen gara hor eta guretako oso egitura interesgarria da gure elkarriketak banaka eskaintzeko aukera ematen digulako, jendeak nahi duenean adi

ditzan. Gazteek horretara jotzen dute gehiago.

Arrosa Irrati Sarean eta Tokikom, euskarazko tokiko komunikabideen gunean ere bagaude guretzat elkarlana oso garrantzitsua delako.

Zure saioa *Karakola segi hola, klasiko bat da?*

Ni honekin hasi nintzen eta jarraitzen dut. Musika eta elkarriketak tartekatzen ditugu. 19:00etatik 20:30etara egiten dugu astelehenetik ostiralera.

Honetaz gain, ortzegunetan musika saio bat egiten dute, *Bidegurutzean*, eta Julen Zelaietak *Bertsoinka* bertsolaritzaren inguruko saioa egiten du. Asteazkenetan gazte batzuek Arrosa sarean egiten duten *Klak* izeneko saioa ere ematen dugu.

Gazteek beraiek egindako saioa da

eta interesatzen zaigu errazago iritsiko direlako gazteengana.

Gainerako orduetan musika?

Horretan ere lan handia dago egina. Jose Miguel Barberena *Xumuxu*-k, Xorroxinen sortzaileetako batek, bilduma izugarria du eta hori probesten dugu. Fernando Anbustegiren ahotsean hainbat atal egiten ditugu musika estilo ugari jorratuz eta jendeari gustatzen zaio.

Eskualdekoen *play list* partikularra?

Bai. Egunean 24 orduz.

Bazkiderik baduzue?

Bai. 2008ko krisia dela eta Nafarroako Gobernuak sartu zuen aitzurra eta lehenagotik apaltzen ari ziren diru-laguntzetan euskarazko hedabideentzako zegoen partida desagerrarazi egin zuen. Gauzak estutu ziren eta beste diru iturri batzuk bilatu behar izan genituen aitzina ateratzeko. Haien artean *Behi Kaka* lehiaketa

“
Gaur egun zuzendaritzarik gabe jarraitzen dugu, denen artean hartzen ditugu erabakiak”



asmatu genuen. Aldameneko belaia koadro markatu eta koadro bakoitzeko boletu bana saltzen genuen. Belaian hiru behi ibiltzen ziren, bakoitza bere txandan, 20 bat minutuz eta kaka non egiten zuten, koadro horren zenbakia zeukanari saria egokitzen zitzaion.

Arrakasta izan zuen lauzpabortz urtez eta diru pixka bat atera genuen.

Horrekin batera irratien aldeko kanpaina abian jarri eta 400 bat bazkide egin genuen. Publizitatea diru iturri garrantzitsua izan da betidanik eta erantzuna nahiko ona izan da baita pandemia urte honetan ere. Horrekin pozik gaude. Horrek erakusten du jendeak entzuten duela irratia eta iragarleek beren interesak babesteko ere balio duela ikusten dutela. Iragarkien bitartez jendeari beren mezuak iristen zaizkiela sumatzen dute eta hori oso ona da.

Honetaz gain, diru-laguntza publiko batzuk jasotzen ditugu Malerreka eta Bortziriko Mankomunitateetatik, Baztango Udaletik eta Nafarroako Gobernutik. Garai batean Eusko Jaurlaritzarenak ere jasotzen genituen.

Zer lortu duzue 40 urte hauetan?

Erreferentea bat izatea. Euskara hutsen lanean 40 urtez, erakutsi dugu

euskaraz bizi daitekeela hemen. Mundu bat dago horren bueltan eta sendoa da gure eskualdean. Alde horretatik hainbat asmoren bilgunea izan da Xorroxin eta nik uste dut hori dela bere meriturik handiena. Irratia sortu zutenek seguruen horretan pentsatzen zuten.

“

**2015etik sarean
ere aritzen gara 'Ttipi-
ttapa' aldizkariarekin
batera www.erran.eus
plataforman”**

Eusko Jaurlaritzak 2015ean egindako neurketaren arabera Xorroxin Irratiak hartzen duen 22.500 biztanleko eremuan 6.680 entzule zituen, Euskal Herrian entzule potentzial eta errealean arteko portzentaje handiena duen euskarazko irratia da.

Nola dago euskara orain eskualde honetan?

Arnasguneak dira inguruko herriak baina badakigu espainierak eta frantsesak zer indarra duten eta arnasguneak izanagatik ere, horiek toki guztietan sartuak daude. Nik ikasketak erdaraz eginak ditut, eta guztiz euskaldun izatea ez da erraza, baina Elizondon nire gartzaroan baino gehiago entzuten da euskara eta herri txikietan ere bai. Eskolan orain euskaraz ikasten dute haurrek eta etxean ere senideak euskaldunak dituzte gehienek eta hori gauza handia da, baina gatazka hori beti izanen da.

Xorroxinen zer hizkera mota erabiltzen duzue?

Tokian tokiko euskalkiek badute indarra. Irratian nahasmendu moduko bat egiten dugu. Hemengo batzuentzat ez da gure euskalki garbia izanen, baina batua hutsa ere ez da. Garrantzitsuena euskaraz aritzea da. Gure erreferente garbiak gure ingurukoak dira eta hizketa-molde horiek saiatu gara geureganatzen, nahiz eta aurreko belaunaldietako mintzamoldeen berdin berdinak ez izan. Entzuleak hizketa moldearekin eroso sentitzea nahi dugu, etxean bezala. Hori funtsezkoa da. Horretan saiatzen gara bederen. Irratiko lanak erraza dirudi baina badu bere mamia.

Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Elkarrizketak egitea, beharbada. Eta jendeak irratiarekin duen konplizitatea. Horrek, batez ere, egiten du Xorroxin hala izatea. Lan komunitarioa bai hizketan eta baita teknikaren alorrean ere. Eredu menditsu hauetan teknika oso lan zaila izan da eta batzuk urtetan izan dira horretan lanean hau dena egiteko, aurtun jubilatuta zaigun Antero Etxandi bezala. Halako jendearen lana izan ez balitz ezinezkoa litzateke hau egitea.

Eta gutxien?

Teknologia berriekin ez naiz sobera ongi moldatzen eta despistatu samarra ere banaiz. Horrekin nahiko lan! ●



Ni-niregatik-niretzat



IKER IRAOLA ARRETXE
EHU-KO IRAKASLEA

Modernitatea ezaugarritu zuen aurrerabidearen ideia nahiz kontaktuz handiak krisian daude aspaldidanik. Horien ordez, lotura hain esturik gabeko errelatoek hartu zuten indarra; eta subjektu kolektiboari gizabanakoa gailendu zitzaion. Errealitatean, hala ere, gizabanakoaren eta kontaktuz kolektiboaren gailentasunaren arteko hartu-eman hori oso aspaldikoa da; esan nahi baita gatazka hori lehenago ere gertatu izan dela. Nolanahi ere, 1990eko hamarkadatik aurrera (eta kontuan hartu beharko genituzke Sobietar Batasunaren erorketa, AEBen gailentasun militarra, Ongizate Estatu deiturikoaren krisiaren areagotzea, eta abar) bazirudien modernitatea atzean geratzen ari zela eta garai berri bati hasiera ematen ari zitzaiola, etapa berri izenik jartzeko eta bere ezaugarriak mugatzeko adostasunik ez bazen ere: modernitate aurreratua, modernitate berantiarra, postmodernitatea, eta abar.

Azken hamar bat urteotan joera hori ez da hain argia, nire ustez. 2008an hasitako krisialdi ekonomiko handiaren ostean, zeina historiako liburuetara *Atzeraldi Handia* izenarekin pasako dela dirudien, pentsamendu politikoaren alorrean egile modernoak berriz itzuli ziren lehen lerrora. Hala da liburuen salmentei soilik erreparatzen badiegu, gutxienez. Edonola ere, egiturazko joera orokor horiekin batera, zalantzarik gabekoa iruditzen zait eztabaida publikoan maila

Gobernuetatik eta erakundeetatik dimentsio kolektiboa lehenesten duten politikak eta kontaktuz bultzatu daitezkeen bezala, errealitatea norbanakoaren praktiketara eta arduretara ere mugatu dezakete

indibidualean zentratutako diskurtsoek eskuratutako indarra; eta horren atzean helburu politikoak egon badirela. Izan ere, aldaketa estrukturalak marko teoriko orokor bat behar duten bezala, eguneroko praktika bat ere ezinbestekoa da lelo orokorreko jardunera ez mugatzeko; eta bien arteko hartu-emana bilakatzeko da funtsezko, beraz.

Administrazio publikoek, errealitatea definitzeko eta gizartean nagusi bilakatzeko diren diskurtsoak eta ikusmoldeak hedatzeko duten gaitasuna dela eta, rol nabarmena jokatzeko dute afera honetan guztian. Esan nahi dut gobernuetatik eta erakundeetatik dimentsio kolektiboa lehenesten duten politikak eta kontaktuz bultzatu daitezkeen bezala, errealitatea norbanakoaren praktiketara eta arduretara ere mugatu dezaketela. Beti

iruditu zait oso argigarria, eta paradokoa, nola langile grebetan *lanerako eskubidea* aldarrikatzen den gehiengoaren interesen alde egin beharko luketen administrazio batzuetatik, noiz eta soilik greba testuinguru horietan, irakurketa indibidualista bat bultzatuz. Norabide horretan doazen adibideak ugariak dira, tamalez.


Bada, aukeraketa hori areagotzen ari da pandemiaren testuinguruan, nire ustez. COVID-19ari loturiko osasun larrialdia, gaixotzeko arriskua, bizitza sozialari ezarritako mugak... astunak egiten ari dira, eta nekea nabaritzen da edonon. Zaila izango da beste modu batera izatea, ziurrenik. Baina logika indibiduala gailentzera daraman testuinguru orokor honetan, non “ni, niregatik eta niretzat” izan daitezkeen leloa, uste dut botere politikotik funtsezko egiteko bat dagoela indarra, hain zuen, kontrako norabidean jartzen: maila kolektiboa lehenesten eta zaintzen duten praktika zehatzetan nahiz kontakizunetan.

Zorionez, herri mailan, batez ere, halako adibideak egon badaude gurean. Udal zehatz batzuek bultzatutako zaintza ekimen komunitarioetatik hasita, mugimendu sozialen jardun oparo eta askotarikora. Neoliberalismoak amestutako gizaki isolatu eta berekoia, izan ere, ezinezkoa baita mundu errealean; eta behin eta berriz mahai gaineratzen da gizakia izaki soziala dela, baita testuinguru pandemiko oker honetan ere. ●

Historiako 1. lezioa



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Euskara erakusten dut Lapurdiko kolegio batean. Bueno, Euskara, eta Historia/Geografia. Bai, nazio-etiketarik gabe izendatzen dute (neutralitate itxura emateko, badakizue, unibertsaltasuna eta beste), baina goitik behera da frantsesa, Frantziakoa eta Frantziarena, munduaren gorabeherei ere Frantziaren ikuspuntutik begiratzen baitie, normala den bezala. Bai, makiabelikoa da horrelako ikasgai bateko irakasleak euskaldunok izan beharra, baina frantsesentzat borobila da diseinua: Frantziaren aldeko politika eta ideologiaren zabalkundea egitearen mesede ez ezik, eskertu ere egiten diegu, zer eta ikasleak frantsesetako lana euskaraz egiten uzteagatik.

Ez dakit, nik ez dut horrelakorik ezagutzen, baina ba omen da gure Herrian, diotenez, hezkuntza euskaldunon ikuspegitik irakasten (ahal) duen ikastetxerik. Bada, lerro hauetatik nire deia: prest daukat historia-lezioa, gure errealitatea ezagutu, interpretatu eta eraldatzeko euskaldun batek jakin beharrekoarekin xumeki osatua. Nik ezin diet ikasleei horrelakorik kontatu, baina beharbada zuek?

Hasteko, berena Euskal Herria dela esan nahiko nieke, mundua jendeztatzen duten herri guzaien arteko bat, eskubidea daukana hala izate hutsaga-

tik bere lurraldean aske bizitzeko, eta kanpoko botere arrotzen injerentziarik gabe bere burua gobernatzeko. Horri independentzia ere esaten zaiola, eta horixe (baizik ez) dela autodeterminazio eskubideak herri bati aitortzen diena: burujabetza gauzatu ahal izateko behar duen askatasun-eskubidea, berez dagokiola.

Eskubide hori oinarrizkoa dela, hainbeste non eskubide funtsezko guzaien arteko lehena eta gainerakoen baldintza gisa kontsideratua den nazioarteko zuzenbidean ere. Eskubidea edukitzeak ez duela esan nahi urratu ezin daitekeenik, urratua izatearen mehatxua delako hain zuzen, eskubide bat formulatu beharra justifikatzen duena, urratua izan ezean ez zaiolako eskubide bati aldarri egiten, ez dago-eta motiborik. Autodeterminazioa aktibatzen duen herriak, beti egiten duela eraso inperialista baten salaketa inplizituki, eta gure kasuan, Espainiak eta Frantziak gure aurka burututakoa.

Ezin direla eskubide funtsezkoak bozkagai ezarri, ez die-eta eragiten gehiengo-gutxiengo jokoaren logikak, noski. Erraza litzatekeela demografikoki handiagoa den herri batentzat tipiagobaten aurkako inbasioa zilegitzea, aski bailuke bozka bat antolatu eta irabaztearekin. Bada ez, gehiengo baten babe-

sarekin ere beti delitu da inperialismoa, eta beti antidemokratikoa. Erregimen bati ez diolako demokraziaren labela gehiengo batek ematen, giza-eskubideen errespetuak baizik.

Herriek defentsarako egitura politikoa ahalik eta sendoenak eraikitzen dituztela, eta hala egin zuela gure Herriak ere, Nabarra erakunde gorena sortuz, geure buruari libreki eman diogun bakarra. Gurea, beraz, ez dela estaturik gabeko nazioa, indargabetuta egon arren estatu bat ez delako iraungitzen, eta gure atxikimendua zor diogula horregatik. Ez delako gauza bera Estatu propioaren aldeko borrokari ekitea sekula estaturik eduki gabeko egoera batetik, ala estatu baten jabe zarela. Agirre lehendakariak ere gure estatalitatearen jarraikortasuna baieztatu eta indarreko tasuna aitortu ziola, bere Euzkadiko Gobernu Nabarrako Erresuma historikoaren ondorengo katebegi gisa aurkeztuz.

Etxe baten jabetza-agiri gisa eskritura batek duen balio bera daukala estatu okupatuaren kasuan, herri titularrak estatu horri egiten dion aitortzak. Nazioarteari erakutsi egin behar diogu horixe (baino ez) dela gure estatu zilegia, gatazka estatuen artekoa dela gure jokabidearekin frogatuz.

Ea zuek posible duzuen, zorte on! ●

Gure Distritu Federalak



IVÁN GIMÉNEZ
KAZETARIA

Beti jakin izan dugu Madrilen elurra egiten badu, leku guztietan elurra egiten duela. Albiste guztietan, ordu guztietan, Madrilgo berriak ikusi eta entzun behar ditugu. Eta ez bakarrik Espainiako komunikabideetan, Teleberri ere gero eta maizago irekitzen dute horrelako albisteekin, Euskal Herriko balizko nazio-iruditeria modu zakarrear zapuztuz... Gauzak horrela, denok ezagutzen ditugu M30, La Cañada Real eta Auzitegi Nazionalean sartzeko aldapatxo hura. Horiek bai, oso ongi txertatuta gure gogoetan...

Azkenaldian, beste kokka bat igo dugu: Madrilgo Erkidego Autonomoaren hauteskundeak Espainia osoko hauteskundeak dira, eta matraka biderkatzen da, jasanezin bihurtzeraino. Zer esanik kiroletan: Real Madrideo ordezko jokalariren baten orrazkera interes orokorrekoa da. Aspalditik gainera.

José María Aznarren apustua zen Espainiako Distritu Federala sortzea, eta aitortu behar dugu bere helburua guztiz bete duela, beste askoren laguntzarekin. Adibidez, AHTko diseinu erradialarekin (Euskal Herritik denok Madrilerantz, ahalik eta azkarren, agian loteria eros-tera).

Dena den, orain dela gutxi, Eibarko kaletik nindoala, telefonoz ari zen ondoko

bati entzun nion: “Bai, Bilboko *afueras*-etan nago”. Harriturik begiratu nion, eta marmarka jarraitu nuen, agian Errege Koparen finalaren apokalipsia irudikatu ezinik. Airean zegoen gogoeta bat harri-patu nuen, inpentsan, Eibarko pasadizo horri esker: kontrakoa zehazten ez bada, gure komunikabideetan eta gure eragile sozialen oharretan, dena Bilbon gertatzen da: Moyua, Jesusen Bihotza, Plaza Borobila... Nongoak? Bilbokoak, jakina. Nahiz eta deialdi eta kartel askotan Bilbo izena ez agertu, euskaldun guztiok jakin behar dugu leku horiek han daudela.

Nafarroatik ikusita, gogaikarria izan daiteke, baina galdetu Lodosako bati zer gertatzen den Iruñeko txikieriekin: gure hiriko afera domestikoak nafar guztiontzat al dira interesgarriak? Takonerako animaliak, Aita Moret kaleko peatonalizazioa? Foru Plazan zerbait antolatzen bada, nork zehazten du Iruñeko plaza dela, kontuan izanik Nafarroako herri guztietan Foru Plazak daudela? Esan gabe doa, fenomeno bera baieztatzeko Donostian edo Gasteizen (zalantzan nago ea Baionaren kasuan ere hori gertatzen den ala ez; agian ez, esango nuke, ez dakit zergatik).

Azken finean, guk ere baditugu gure distritu federalak, Madrilgoa bezain itogarriak ez badira ere. ●

Garbitzaileen grebaren porrotaz



ITZIAR BARDAJI
GOIKOETXEA
IRAKASLEA

Orain dela bi aste Nafarroan garbitzaileek grebara deitu zuten. Indarrez zetorren greba hau. Egun, emakumeon borrokaren eskutik, gizar-tean hobe ulertzen da garbitzaileen lana, zaintza lanak orokorrean, funtsezkoak direla. Onartzen da lan hauek, soldatepeko lanaren markoan nahiz etxean, feminizatuak izaten jarraitzen dutela eta geroz eta arrazializatuagoak, eta funtsean horrexegatik gaizki ordaintzen direla. Hiperdesinfekzioaren aro honek hau guztia indartzen du eta aitortza faltarekin konekta dezakegu balkoietako txaloak hasi zirenetik eta gaur arte gar-

bitzaileez ahaztu ginela esaten badigute. Une bikaina zen, pertzepzio sozialak eta lan baldintzek ez dute bat egiten, eta bien arteko leihoak aukera polita eskaintzen du. Langileen eskaerez haratago, gizar-tearen aurrerapauso bat gauzatzeko erronka sinbolikoa da.

Berriro ere gertatu da. Egun sindikatuen boterea erabat mugatuta, neutralizatuta dago eta langileria ez da oraindik borroka tresnak berriak eratzeko gai izan. Instituzioak berezkoa du aldatu gabe irauteko inertzia eta, egun, gaitasun estatiko oso handia du, kezkatzekoa. Sormena behar dugu. ●

Lehen urratsa izan dadila



**ARKAITZ ZARRAGA
AZUMENDI**
EUSKARA IRAKASLEA

Sei Argazkitan saioan Joseba Arregik horrela azaldu zion Pedro Mari Goikoetxeari HABEren euskaltegiak sortu eta gutxira udalen menpe utzi izana: “Oso ondo asmatu genuen. Euskaltegi municipalak inportanteak izandu dira gauzak bere onera eramateko, eta HBren eta AEKren monopolioa beren eskuetatik kentzeko...”. Ricardo anaiak Euskaltzaindiari igorritako gutun famatu haren aurkako izpirituz, zalantzarik gabe.

Euskaltegiak beti egon dira gatazka haien ondorioak ordaintzen, eta jakina, euskalgintza eta euskalduntze prozesua ere bai. Garai haietako giroak eragina izan zuen euskaltegiaren ekonomian, baina baita jarduera akademikoan ere; izan ere, euskalduntzea norbanakoen lepo utzi zen, lan mundurako Hizkuntza Eskakizunak ezarrita, erabilera hortik helduko zelakoan. Euskaltegiak, neurri handi batean, biziberritze prozesuko motor izaera galduz joan ziren. Kaleetatik desagertzen. Egungo euskaltegien “panorama” orduko politiken ondorio zuzena dugu.

Baina, badirudi gauzak aldatuz doaze-

“Herri ekimeneko euskaltegiekin” akordioa egin du Eusko Jaurlaritzak, hainbat langile prekarizatetik ateratzeko. Berandu bada ere, ongi etorria

la. 2021eko apirilean “Herri ekimeneko euskaltegiekin” akordioa egin du Eusko Jaurlaritzak, hainbat langile prekarizatetik ateratzeko. Berandu bada ere, ongi etorria. Benetan penagarriak dira hainbat kolegaren lan-baldintzak. Beraz, esan daiteke tunelaren amaieran argia badela, eta oraingoan, antza, ez da kontrara datorren tren.

Sinatzaileetako batzuei entzun diet hau hasiera baino ez dela, erronka handiak ditugula. Eta ados nago. Irakaskuntza arautuan ez bezala, gurean ez daude ondo definituta sare publiko eta

pribatua. Egia esateko, ez dago sare publikorik. Udalen menpe egonik, ez dago bateratasunik lan baldintzetan, baliabideetan, lan-poltzetan... Azken lan eskaintza (erretiroren bat salbu) 90eko hamarkadan egin zen. Bestelakoen artean ere anabasa handia da. Hezkuntzan ez bezala, badira, adibidez, mozkin banaketak dituzten euskaltegi pribatuak. Ez dakit oso ondo zelan uztartuko diren mozkinak eta diru-laguntzak. Eta ez dezagun ahaztu EAetik haratago ere badirela euskaltegiak.

Eta HABE? Zein izan beharko litzateke HABEren egitekoa? Nolako loturak beharko lituzke Hezkuntzarekin, euskalgintzarekin, plangintzekin, Nafarroa eta Iparraldeko erakundeekin...

Erronka erakargarriak ditugu aurrean: doakotasuna, ahozkotasuna, erabilera, ebaluazio sistema doitzea, euskaltegiak plangintzetan txertatzea, etorkizuneko irakasleak prestatzea, unibertsitatea guri begira jartzea... Baina biziberritze prozesuak abiada har dezan, ez dira nahikoa partxeak, motor zaharra goitik behera egokitu behar dugu. ●

Basherrri
SAREAK
GAIKIDIAK, KANTSIMO, TILDE, ETA KIDYERRIK

Elika gaitezen irizpideak kontuan hartuta eta **amalurra** zainduz

655709043 | info@basherrisarea.eus

 **ERRENTA**
RENTA20



BERRIA
Erraza

Bizkaiak pertsona guztientzako proposamen bat du.

Apirilaren 6tik ekainaren 30era arte

bizkaia.eus/errenta

 **Bizkaia**
egiten

AROTZTEGIAREN AURKAKO AKANPADA

Bizitzaren alde, erresistentzia aktibatu da Baztanen

Lekarozen turistentzako 228 etxebizitza, golf zelaia eta luxuko hotela eraikitzeko Aroztegia proiektu urbanistikoaren obrak hasi eta berehala iritsi da herritarren erantzuna: akanpada bat jarri diete parean hondeamakinei. Hor izanen dira proiektua gelditu arte.

 GARAZI ZABALETA  DANI BLANCO

Apirilaren 8an iritsi zitzaizkigun Lekaroztik lehen berriak: Aroztegian eraiki nahi duten makroproiektu urbanistikoaren obrak hasiak ziren, eta baita kontrako mobilizazioak ere; elkarretaratzeak ikusi genituen, eta ikusi genuen jendea hondeamakinen aurrean jarrita obrak geldiarazten. Egun batzuk geroago, beste mezu bat: “Apirilaren 16an, akanpada”. Eta hor ikusi dugu Baztango nahiz kanpoko jendea Lekarozko lursailetan akanpatzen, gau eta egun erresistentzia bertatik egiteko asmoz eta egitasmoa betiko gelditzeko konbentzimenduarekin.

Ez da berria erresistentzia-akanpaden borroka eredia gurean. Leitzarango autobiaaren kontra egin zirenak burura datozkigu Nafarroan, edo AHTren kontrakoak, edo Frackanpada, edo... badira adibide ugari. Baina Aroztegiakoak badu ezaugarri berezi bat: koronabirusaren aroan gertatzen ari dela, eta lozorroan zegoela zirudien herri-mugimendua berriz ere aktibatzen txinparta moduan ikusi dutela askok. Garaiotan ere protesta eta ekintza zuzena egingarria eta beharrezkoa denaren erakusle, jaso duten erantzun zabalak borrokarako gosea eta ilusioa egon bada-goela adierazten du.

BAZTAN BENIDORMTZEKO MAKROPROIEKTUA

Duela hogeit urte baino gehiago sortu zen Aroztegi lehen egitasmoa, 1998an. Hotela eta baserri-eskola egitea zen hasierako asmoa, baina ez ziren inoiz gauzatzera iritsi. 2008an, berriz, Elizondoko enpresari-familia batek Inmobiliaria Caixa Gali-ciarekin batera Palacio De Arozteguia S.L. enpresa sortu, jauregia eta inguruak erosi eta espekulaziorako proiektua abiatu zuten. Hor sartu ziren urbanizazioa eta golf zelaia jokoan: 252 etxebizitza planteatu zituzten hasieran, 228 dira gaur egun. 300 biztanle inguru dituen Lekaroz bezalako herri batentzat, inpaktu ikaragarria.

Ibilbide horretako jokaldi borobilena lurren birkalifikazioa izan zen, 2009an. Ilegalizazioen garaia zen, eta Baztango Udalean NaBaik eta UPNk aho batez onartu zuten 40 hektarea lur birkalifikatzea, ez-urbanizagarri izatetik urbanizagarri izatera pasatuz. “Hori izan zen pelotazoa”, diote proiektuaren aurkakoek. 2014ko bukaeran, berriz, epaitegiek proiektua legez kanpoko zela ebatzi zuten lurretan sute bat egon zelako. Udalean, ordurako, enpresak ez zuen aliaturik proiektua birdefinitzeko. Zer egin? Bada, babes bila beste toki batera joan: Nafarroako Gobernura jo eta UGPS —Udalaz Gaindiko Plan Sektoriala— gisa izendatu zuten proiektua, Baztango Udalarari eskumena kenduz.

ERRESISTENTZIA-AKANPADA: “EDO ORAIN, EDO INOIZ EZ”

Golf zelaia eraikitzeko lursailean bolei-bol zelai inprobisatua egin dute akanpada kideek eta jolasean ari dira batzuk. Beste batzuk txalaparta jotzen, elkarriketan, musean edo kartelak egiten. Tentsio uneak izan dira, baina espazioaz eta jendeaz gozatzeko tarte lasaigoak ere badira. Hori bai, motozerra soinu entzunez gero, denak segituan alerta. “Lasai, ondoko baserrikoak dira-eta...”, esan du norbaitek, eta barreak etorri dira segidan.

Erreportaje hau idazten ari garen unean zutik jarraitzen du kanpaldiak, eta obrak gelditu arte hemen izanen direla jakinarazi dute ekintzaileek. Hain zuzen astebete egin dutenean, obretako TEX enpresak makinak kamioi batean kargatu eta eraman egin ditu. “Erresistentzia ari da bere fruituak ematen, eta horratx lehen garaipen txikia”, txiokatu du Aroztegi herri-ekimenak. Iruñean eta Lizarraldean ere babes emateko taldeak sortu dira, eta hainbat ekintza egin dituzte. Herritar eta eragileei akanpadara hurbiltzeko dei egiten diete herri-ekimenetik, eta horretarako haiekin harremanetan jartzeko. Maiazaren 15ean ere hitzordu garrantzitsua dute Elizondon: manifestazioa egingen da.



Aroztegia jauregira daraman
bidean hondeamakinek
botatako arbolak ikus
daitezke. Ezkerrean,
akanpadako kideak lanean;
txanden bidez antolatatu dira.



“ ”

Batzarraren eta auzolanaren formatu berri bat da akanpada

Garbiñe Elizegi Narbarte eta Aintzane Ariztegi Barrenetxe

Akanpalekuan bertan elkarrizketatu ditugu mugimenduko bi kide lekaroztar: Garbiñe Elizegi Narbarte eta Aintzane Ariztegi Barrenetxe.

Lehena hogei urteotako borroka luzean egon da eta bertan jarraitzen du, eta bigarrena, 1998an lehen egitasmoa atera zenean jaio berria zen eta egun buru-belarri dabil proiektuaren aurka.

Belaunaldi ezberdinetako bi kide, borroka berean.

 GARAZI ZABALETA  DANI BLANCO

Erresistentzia-kanpaldiarekin astebete pasatxo daramazue. Orain artekoaren zein balorazio egiten duzue?

Aintzane Ariztegi: Indartsu gaude eta jende mordoxka bildu gara aste honetan, egunez egun hemen irauten duen jendea gainera. Baztandik eta Euskal Herri oso-tik ari gara elkartasuna jasotzen, eta geroz eta babes handiagoa dugula eta gure borroka oihartzuna hartzen ari dela sumatzen dugu. Pozik gaude horrekin.

Zein da Aroztak herri-ekimenaren eta kanpaldiaren filosofia?

Garbiñe Elizegi: Desobediencia da orain gure bidea, beste bide guztiak agortuta daudelako. Urte hauetan guztietan saiatu gara beste modu batera proiektua geldiarazten, indarrrik erabili gabe eta guretzat ahalik eta arrisku gutxien hartuz, baina ez gara entzunak izan. Bake sozialaren izenean protestak eta herri mugimenduak geldiarazteko saiakeran ari diren garaiotan, erresistentzia akanpada abiatzea erabaki dugu guk. Ez dugu gure filosofiaren inguruan gehiegi teorizatu, baina eguneroko praktikan batzarra eta auzolana ditugu tresnak, horrela hazi garelako eta hori delako gure kulturaren

oinarria. Beraz, akanpada hau batzarraren eta auzolanaren beste formatu bat dela esan daiteke, eta elkarren zaintza ere beti kontuan izaten dugu.

Koronabirusak kanpaldia antolatzea eta jendea erakartzea dezente zaildu izan dizue...

G.E: Egia da jende batek ez duela ikusten hona etortzea egoera dela-eta. Guk hori ulertzen dugu, eta badago kanpotik egiteko lana ere, beraz, ez dago arazorik. Hemen hasieratik izan dugu kontuan koronabirusaren egoera; bertako edonor arriskuan badago edo inguruan kasuren bat tokatu bazaio, kanpora atera behar du. Akanpalekuan test azkarrak ere baditugu, norbaitek susmoren bat duenean lehenbailehen egiteko. Dena dela, guk egungo pandemiaz gain, Aroztégia bezalako proiektuek osasunean duten eragina ere ikusten dugu. Horregatik diogu osasuna bi modutara zaintzen dugula hemen: beharrezko neurriak hartuz bakarrik ez, gure ingurua zainduz ere bai. Azken batean, bizitzaren aldeko borrokan gaude hemen.

Nola funtzionatzen duzue eta nolakoa da hemen egunerokoa?

A.A: Txanden bidez antolatzen gara, egunero doa jendea aldatzen, ez errepikatze eta iristen doazen pertsona berriak inplikatze. Otorduak ekartzeko, zikintzen ditugun gauzak garbitzeko, janaria banatzeko eta ingurua txukun mantentzeko txandak daude, adibidez. Gauzak erabakitze, berriz, eguneroko batzarrak ditugu: bertan banatzen dira txandak, antolatzen da erresistentzia eta zehazten ditugu hurrengo pausoak. Bestetik, goizero obrak hasten direnerako denak prest egoten gara, behar den tokira hurbildu eta makinak gelditzeko.

Eta hizkuntzaren aldetik, nola ari zarete moldatzen batzarretan-eta?

G.E: Dena euskaraz egiten dugu. Herri euskalduna da Lekaroz eta gure borroka oinarrietako bat euskara da. Proiektu honen aurka egiteko argudioen artean pisu handia du hizkuntzarenak, frogatua baitago euskararen arnaguneetan horrelako urbanizazio eta makroproiektuek zein kalte eragiten duten. Beraz, batzarretan –eta bestela ere– euskaraz funtzionatzen dugu, akanpaleku barnean nahiz kanpoan. Espainol eta frantses hiztunak etorri direnean gure artean itzultzaile bat bilatzeko esan die-

gu, eta ez dute xuxurlariak topatzeko arazorik izan.

Akanpaleku “barruan” eta “kanpoan” bereizten duzue. Sare oso bat dago hemendik kanpo ere antolatuta, ezta?

A.A: Bai. Koronabirusaren kontuagatik, bakoitzak dituen muga pertsonalengatik edo borroka ulertzeko moduagatik, badago jendea akanpatzera etorri ez baina beste moduren batean parte hartzen ari dena. Honen parte izateko ez dago zertan hemen bi aste kanpin batean pasa: hor daude otorduak txandak egiten dituen jendea eta kanpotik babesten gaituen sare osoa, gu hemen akanpatuta egon ahal izateko lanean ari direnak. Zaintza lan hori guztia da gure sostengua, hori gabe ezingo ginateke hemen egon.

Baztandik eta Lekaroztik kanpoko pertsona eta eragile askok ere bat egin du borrokaekin.

A.A: Hasieran hemengo jendea ginen, baina ikusi genuen gure indarrak neurtu behar genituela, eta epe luzerako zer-

bait denez, kanpoko babesa ere behar genuela. Nafarroako herri-mugimenduko hainbat eragileri hona hurbiltzeko proposamena luzatu diogu, hasieran proiektu txikitzaileen kontra eta ingurumenaren eta landa eremuaren defentsan ari direnei, baina gerora bestelakoei ere bai. Azkenean, hau ez da ingurumenaren aldeko borroka soilik, gizarte eredu baten aurkakoa da, eta horrek eragile desberdin askori ematen dio bertara atxikitzeko lekua. Euskal Herrian Euskarazek adibidez kartela atera du gure borroka babesteko; bada hortik hasi eta Bilgune Feministaraino goaz, AHTren kontrako borrokatik pasatuz...

G.E: Tira, guretzat borroka bakarra da. Ez da borroka bat ingurumenaren alde egitea, beste bat feminista izatea, beste bat euskaldun izatea... hori dena gara gu. Baina egia da proiektu honek alde askotatik gurutzatzen gaituela, horregatik gaude talde desberdinetako jendea.

Hemen gertatzen ari dena bizi eredu kontrajarrien arteko talka bezala

ulertu behar dugu, beraz?

A.A: Baztanen pasatzen ari dena prozesu zabalago baten eta gizarte eredu baten garapenaren bertze adar bat bezala ulertu behar dugu, bai. Landa eremuak eta bizitza jasangarriak sistema honetan ez dute lekurik, eta urtetik urtera proiektu txikitzaile hauek prozesu hori bizkortzen ari dira. Ekonomia osoa turismoan oinarritzeko bidea hartu du Baztanek, eta berdin dio turismo horrek mugarik ez izateak ere. Badirudi gure aterabide eta sostengu bakarra dela. Bitartean, hemen beste prozesu batzuk gertatzen ari dira: nekazaritza eta herriko bizitza galtzen ari dira, gazte nekazari guti dago, etxebizitzarekin eta lanarekin sekulako arazoak daude... Hau da sistemari interesatzen zaion bidea: landa eremua aberaskumeen denbora librerako parke bihurtzea, eta ez bertako herritarrek bizitza jasangarriak bizitzeko toki.

G.E: Sinetsarazi nahi digute ez dela posible hiriko bizimodutik kanpo bizitzea, gure kulturak eta hizkuntzak ez duela baliorik. Bizitza sostengatzeko beha-



Aroztak herri-ekimeneko kideek azaldu dizkigute akanpadaren nondik norakoak. Ezkerrean, Garbiñe Elitzegi eta erdian, Aintzane Ariztegi.



rezkoak diren gauzei balioa kendu zaie: zaintza, emakumea, lurra, nekazaritza, kolektiboa, batzarra, auzolana... Guk horri buelta eman behar diogu. Baztanen denentzat tokia badagoela diotenei esaten diegu ezetz, gauza guztiak ez direla bateragarriak: ez da bateragarria hemen 228 etxebizitza egitea hiritik heldu diren erdaldunentzat eta esatea Lekaroz euskalduna izango dela. Hori gezurra da.

Egunero ari zarete poliziaren bisitak jasotzen. Nola daramazue hori?

A.A: Poliziaren presentzia etengabea da, akanpalekuko eremuraino ailegatu dira zenbaitetan, eta ingurua ere behin eta berriz ari dira zelatatzen. Bereziki akanpalekuaren eta kanpoaldearen artean dagoen mugimendua jazartu dute, eta hor sartzen da herrikoa ere: momentu batez Lekaroz kasik setiatua izan dute, egunero daude kontrolak herriko sarrera-irteeretan, eta herritarrek ere presentzia horretaz kokoteraino daudela adierazi dute.

G.E: Ez da onartzen ahal gobernu batek baliabide hauek guztiak erabiltzea enpresa pribatu batek egin nahi duen astakeria defendatzeko. Kapitalaren defentsa modu erabat lotsagabea egiten ari dira. Zergatik ari dira baliabide publikoak modu horretan gastatzen, zergatik egon behar dira etengabe herria jazartzen?

Herritarrek nekatzea eta kanpaldiaren aurka jartzea izanen da agian haien helburua...

A.A: Ba uste dut justu kontrakoa lortzen ari direla.

G.E: Nire ustez, urteetan herrian jendea proiektuaren aurka egon arren, fisikoki bertako haritzak eta arbolak xehatzen ikusi dituztenetik mina eta amorrua presenteago daude.

A.A: Bai, sentsazioa da gure herria ez dela orain arte ezagutu duguna izatera inoiz itzuliko, eta horrek jendeari min handia sortzen dio. Orain arte agian ez zuten ikusten, edo batzuk pentsatuko zuten ez zela eginen. Bada, orain egi bihurtzen ari da, eta egia hori min ari da bilakatzen herritarrentzat.

Zein momentutan daude obrak?

G.E: Ez dute gehiegi aurreratu, baina egia da hondeamakina batek eta lau motozterrek egun gutxitan triskantza handia egin dezaketela. Sarrerako arbola horiek denak bota dituzte eta goian pista egin dute. Lehen egunetan obrak gelditzera etortzen ginen, baina gu arratsaldean iristerako goiz osoan lanean arituak ziren eta arbolak botata zituzten. Gero, Telleriako inguruan -Lekarozko herriarentzat toki oso sinbolikoa, festetan baz-

kari asko bertan egiten genituen- hasi ziren haritzak botatzen, eta hor esan genuen: listo, nahikoa da, ez diegu arbola bat gehiago ere botatzen utziko!

TEX enpresa lanak modu irregularrean egiten ari dela ere salatuz.

G.E: Bai, udaletik adierazi dutenez, haiek ez dute baimenik momentu honetan hemen egoteko. Proiektua UGPS bezala izendatua egon arren, badira udalak eman behar dituen baimen batzuk, eta horiekin arazoak egon dira. Bestetik, lurretan dagoen ermitaren espropiaziorik ez dute egin, udalak erreklamatu eta epaitegietan dago orain. Gainera, UGPSak bete beharreko irizpide eta klausula sozial guztiak ez zituen betetzen proiektuak; LAB sindikatuak helegitea sartu eta sententzia atera zen erranez esleipena bertan behera gelditzen zela. Dena dela, guk diogu berdin zaigula baimenik baduten edo ez: onartuko dugun gauza bakarra UGPSa bertan behera uztea izanen da.

Akanpada mugagabea deitu duzue eta babes gero eta handiagoa duzue. Proiektua gelditzeko aukera errealik badago?

G.E: Bai. Proiektu hau gelditzen ahal da, gelditu behar da eta geldituko da. Argi eta garbi dugu hau bizitzaren aldeko borroka dela, gure bizimodua erabat baldintzatuko lukeela eta oso garrantzitsua dela irabaztea. Hemen izanen gara proiektua gelditu arte, ez dakigu akanpadatik edo beste modu batzuetan, baina hori da gelditzen zaigun aukera bakarra. ●

aholkukoop
Fiskala Kontables Laboratza

**EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA**

aholku@aholku.eus · 943 005 680
aholku.eus

300 urte Read eta Bonny joan zirela



NAGORE
IRARUSTABARRENA
URANGA

Port Royal (Jamaika) 1721eko apirilaren 28a. Sukar bortitz batek hil zuen Mary Read pirata ingeles ezaguna, kartzelan zela eta 35 urte zituela. Anne Bonny (1697-1721) eta bera dira historiako emakumezko piratariek ezagunenak eta pirateriagatik epaitu eta zigortutako bakarrak. Biak batera aritu ziren Pirateriaren Urrezko Aroan.

Mary Ingalaterran jaio zen 1685ean. Txikitatik Mark izenez ere ezagutzen zuten eta mutikoen jantziak jartzen zizkion amak. Amaren senarra hil eta gutxira biek aurrez zuten semea hil zen. Mary ezkontzaz kanpoko harreman batetik jaio zen eta ez dugu bere aita biologikoaren berririk. Amak sasiko umea ezkutatzeko eta egoera ekonomiko larria hobetzeko irtenbidea topatu zuen: Mary hildako anaia Mark bezala jantzita eta haren izena hartuta, senarraren familiak diruz laguntzea lortu zuen.

Maryk mutilez jantzita lortu zuen lehen lana. Morroi gisa aritu zen, lehorrean lehenik eta itsasontzi batean, gero. Britainiar armadan ere aritu zen. Gizon itxurak baztertu eta flandriar soldadu batekin ezkondu zen, baina ezkontza laburra izan zen. Senarra hiltzean, berriro gizona jantzi eta itsasoratu zen.

1708 urte inguruan, piratek Rearden ontzia erasotu zuten eta ez zuen erreparorik izan haiekin bat egiteko. 1920an John *Calico Jack* Rackham eta haren bikotekide Anne Bonnyrekin bat egin zuen. Bi emakumeek ba omen zekiten bestea emakumea zela. Eta John




Mary Read eta Anne Bonny piratak. 300 urte dira bata hil eta bestea desagertu zela.

Rackhami Bonnyk berak esan omen zion Read emakumezkoa zela, Rackhamek susmatzen baitzuen Bonnyk eta Readek maitasun harreman bat zutela. Historialariek ez dakite nolakoa zen benetan bien arteko harremana, eta ez dakite ahalegin handia egiten ote zuten gizonaen mundu hartan emakumeak zirela ezkutatzeko ala, besterik gabe, askoz erosoagoa zelako jantzen ote ziren gizonaen. Bikotea halaxe deskribatu zuen Dorothy Thomas lekukoak: "Gizonaen jakak zeramatzen, galtza luzeak eta burua zapietan bilduta. Matxete eta pistola bana zituzten eskuetan, irainak

eta biraoak botatzen zituzten, eta ni hiltzeko eskatzen zieten gizonaen". Thomasek garbi omen zuen emakumeak zirela "bularren tamainagatik".

1720ko azaroaren 15ean atxilotu zituzten Read, Bonny eta eskifaia osoa. Epaitu ondoren, denak urkamendira kondenatu zituzten, baina bi emakumeak haurdun zeudenez, erditu arte zigorra atzeratzea erabaki zuten. Ez dakigu Read erditzean edo lehenago hil ote zen. Eta Bonnyren berri ez dugu handik aurrera, ez ihes egin zuen, ezta exekutatu zuten ere. Mary Read hiltzarekin batera galdu zen Anne Bonnyren arrastoa. ●



Labarretako artistak eta hipoxia

Paleolitoko margolariak labarretako pinturak hipoxiaren efektupean egin ohi zituztela dio Tel Aviveko unibertsitateko Yafit Kedar arkeologoak zuzendu duen ikerlan batek. Eta hipoxia propio bilatzen zutela trantzean lan egiteko, gorputzak dopamina askatzen baitu egoera horretan. Margolaren kokapena aztertu dute, eta ondorioztatu dute kobazuloetako gela eta galeria

sakon eta estuetan egiten zituztela, hau da, oxigeno gutxiko tokietan; atmosferan oxigeno kontzentrazioa %21ekoa izan ohi da eta pinturen zenbait kokapenetan %11raino jaisten da. Gainera argiztatze-ko erabiltzen zituzten zuziek ere oxigenoa xurgatzen zuten, kontzentrazioa gehiago murriztuz eta hipoxiarako arriskua –edo aukera, kasu honetan– handituz. ●

Bikote harreman toxikoak azaleratzen dituen eskailera

Genero Indarkeriaren Eskaileran, zaplaztekoa edo bortxaketa azkar asko identifikatzen dugu, baina bikotekideak mugikorra kontrolatzea, haren erruz lagun eta zaletasunetatik aldentzea, edo janzkeran eta bestelakoetan beti amore ematea onargarri –are gehiago, maitasunaren izenean logiko– iruditzen zaio hainbat neraberi. Indarkeriaren Eskailerako lehen maila horiez eztabaidatzea inportantea da ikasleekin, lantzen dutenean ohikoa delako eskaileran kateatuta dagoen ikaskideren bat agertzea, neskek adierazten dituzten beldurrekin mutilak harritzea, harremana ez moztearen ardura biktimarengan zamatzea edota bikote kontuetan besteek ez dutela zertan sartu pentsatzea, Irungo Toki Alai ikastetxean kontatu digutenez.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  PAULA ESTÉVEZ

Carmen Ruiz Repullo soziologoak garbi azaltzen du bideo batean zer den Indarkeriaren Eskailera, nola hasten den bikotekidea bestea non eta zertan ari den uneoro jakin nahian, pixkanaka pertsona hori gainerako guztitik bakartzen eta isolatzen, bere janzteko modua eta jokaera baldintzatzen... kon-turatzeko gutxiespena, umiliazioa, mehatxua, beldurra eta baita indarkeria fisikoa ere baliatzen dituen arte. Indarkeria fisikoa agertu aurreko urrats horiek guztiak ikasleek identifikatu ditzatela eta atzean dagoen errealitateaz jabetu daitezela dute helburu Toki Alai eskola publikoan. Horretarako, gaia gradualki eta sakontasun maila gero eta handiagoarekin lantzen dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, lehenengo mailan hasi (12-13 urte inguruko ikasleak) eta laugarren mailara arte (15-16 urte ingurukoak).

Ikastetxeko Hezkidetza arduradun Beatriz Rubio Peralesek argitu digu ari- ketaren bidez zein errealitate azaleratzen den ikasleen artean. Oso orokortuta dagoen joera aipatu digu: mugikor bidezko kontrola, bikotekidearen mugikorraren pasahitza jakiteraino; eta kontrolari lotuta, jeloskorkeria. Kontrol puntu bat positiboki baloratu ohi dute neskek, maitasun erromantikoaren mitotik hala barnera-tuta. Sarri, maitasunarekin lotzen dute norbera besteari “erabat ematea”; alegia, gardentasun osoz jokatu beharra, inongo sekreturik gabe. “Zergatik jakin behar du bikotekideak dena zutaz? Zergatik ezin duzu izan zure intimitatean gorde nahi duzun arlorik, zuretzat izatea nahi duzun emozio eta barne-pentsamendurik?”, planteatzen die Rubiok. Ikasleak harritu egiten dira, baina hezitzaileak adierazi nahi die ez dagoela zertan erabat biluztu bikote harreman batean egonagatik, hori ere kontrola dela, nolabait.

Kontrol puntu bat positiboki baloratu ohi dute neskek, maitasun erromantikoaren mitotik hala barneratuta. Sarri, maitasunarekin lotzen dute norbera besteari “erabat ematea”, inongo sekreturik gabe

Mutil askoren erreakzioa zein da? Bada, salatzea eurekin ere antzera jokatzen dutela neskek, bikote harreman heterosexualetan, kontrolatzen dituztela edota lagunengandik urrundu. Eta hala da, baina ikerketek diote hasierako urratsetatik harago ez duela eskaileran

gora jarraitzen mutilak, nekatu eta moztu egiten duela, eskailerako maila larrietara iritsi aurretik. Neskek, orduan, zergatik segitzen dute goraka? “Genero eraikuntzak batzuei eta besteei eskatzen diena ezberdina delako, eta neskei jasaten erakutsi digute; eta maitasun erromantikoaren mitoa ere barnertatu dugu, pentsatzen dugu mutila aldatuko dugula, maitasunak gure bikotekidea aldatuko duela denborarekin”, dio Rubiok. Azken finean, gazte hauentzat lehenengo bikote harremanak dira, eta jaso duten eredu, ikasi dituzten jarrerak baino ez dira ari errepikatzen. Nesken kasuan jokaera ugariren abiapuntuan maitasun erromantikoaren mitoa dagoela garbi du irakasleak; mutilen kasuan, sexua izan ohi da abiapuntua: *matxo alfa* irudikatu beharra, itxura hori eman, pornografiaren bidez jasotzen duten eredu errepikatu eta kontrola eurek dutela adierazi beharra. “Pentsa, sexualitate klasean mutil batek galdetu zion irakasleari ea gaizki ote zegoen sexua praktikatu bitartean neska-lagunari eztarria estutu nahi ez izatea”.

UR BEROAN DAGOEN IGELAREN METAFORA

Neska askoren erreakzioa zein da? Bada, onartzea harremanetan beti beraiek direla egoera ezberdinen aurrean amore ematen dutenak. Eta hori, beti amore ematen aritzea, Indarkeriaren Eskailera dela azaltzen zaie. Nesken artean ohiko beste erreakzio bat da biktima den neskari berari leporatzea zergatik ez duen harremana moztzen, zergatik ez den eskaileratik ateratzen. “Ados, ez du harremana utzi, baina inork ez dio esan utzi behar duenik eta agian barruan dagoenak ez du egoera kanpokoak bezain

argi ikusten –azaltzen die Rubiok, eta igelaren metafora kontatzen die–. Igela lapikoan sartzen baduzu ura irakiten dagoela, salto egingo du; igela ur epelean sartzen baduzu eta poliki-poliki ura berotzen bazoaz, igela ez da konturatu-ko eta azkeneko ez du gaitasunik izango ateratzeko; norbaitek eskua sartzea eta ateratzea behar du. Eta besteok izan behar dugu esku hori, laguntza hori”.

Indarkeriaren Eskailera gaur egungo gazteen artean bizi dagoen seinale, gaiaz hitz egiten ari direlarik klasean ikus daitezkeen ikasleen arteko begiradak, keinuak eta txutxu-mutxuak. Eta denen aurrean ez, baina klasea bukatu eta irakaslearengana gerturatu ohi da bat edo beste, normalean neskak, ingurukoren batek –ez norberak– antzeko kasuren bat bizi duela kontatzera, uneoro kontrolatuta dagoela, kuadrillatik aldentu dela. “Kuadrillan arazoak dituela iristen zaigu guri, apur bat arakutzen duzu eta atzean bikote harreman toxiko bat agertzen da maiz”.

ZUK ZER EGINGO ZENUKE?

Bikote harreman toxikotik kanpo daudenen rola aztertzeke hainbat egoera planteatzen dituzte klasean. Lagunak elkarrekin zaudete eta Ikerrek bere neska-lagunari esan dio horrela jantzita ez doala inora berarekin; Laura zure lagunaspaldi ez da zuekin ateratzen, beti aitzakiak jartzen ditu; Iratirekin oso deseroso sentitzen zara, denbora guztian mugikorrari begira dagoelako, mutilarekin whatsapeatzen... Zuk zer egingo zenuke? Irakaslearen esanetan, ikasle ia



guztiak konturatzen dira egoera horietan gertatzen dena ez dela egokia, baina hortik esku hartzera (zerbait esatera, laguntzera) ausartzen direnak oso gutxi dira. “Sarri entzuten duguna da ‘ez dira nire gauzak, nola sartuko naiz bikote harreman batean?’, eta gu saiatzen gara ulertarazten zerbait desegokia ikusiz gero horri aurre egiteko esku har dezaketela, edo bestela konfiantzazko helduren bati kontatu”.

Ariketaren azken urratsa da bikote harreman osasuntsu batek nolakoa izan behar duen pentsatzea eta ezaugarriak izendatzea, modu eraikitzailean. Maitagarria, alaia, ez jeloskorra eta fidela dira zerrendatzen dituzten ezaugarrietako batzuk. “Bitxia da, fidelitasunari garrantzi handia ematen diote, gauza batzuetarako oso aurrerakoi dira eta beste batzuetarako oso tradizionalak”, aipatu du Beatriz Rubiok.

NESKA-MUTILEN ARTEKO EZTABAIDA ABERASGARRIAK

Hezkidetzaren arduradunak kontatu digunez, beti ikasle guztiak elkarrekin landu dute gaia, baina duela gutxitik neskek neskekin eta mutilak mutilekin bananduta egiteko dinamikak tartekatuta dituzte. Lanketa berezitua egiteko eta hainbat gauzaz sakonago solastatzeko aukera ematen dute tailer hauek; mutilekin aritzen den gidaria gizona da, neskekin biltzen dena emakumea: adibidez neskekin ahizpatasuna lantzeko baliatzen dituzte dinamika hauek eta mutilekin maskulinitate ereduaz gogoetatzeko.

Hori bai, hausnarketa elkarrekin egitea eta elkarri entzutea ere funtsezkoa dela deritzo Rubiok. Esaterako, mutilek eta neskek beti ez dute egoera bera berdin interpretatzen, eta eztabaida interesgarriak sortzen dira. Ikusi berri duten bideoan Anderrek Lorenari eskua kamiseta azpitik sartu diola eta Anderren ikuspegia (pozik) eta Lorenarena (deseroso) kontrajarriak direla-eta, “baina ez dio ez egiteko esan”, dio mutil ugari; eta neskek, gaur egun sarri helarazten den mezua barneratuta, erantzuten diete: “Baietz ere ez dio esan ordea, ez dio baimenik eman”.

Gainera, albokoaren bizipenak eta beldurrak entzutea argigarria dela dio irakasleak. Neskek aipatzen dituztenean generoari lotuta entzun behar izaten dituzten esaldiak –“horrela jarraituz gero ez duzu mutilik botako”, “arropa oso gutxi daramazu

gainean”...-, mutil batzuk harrিতa gertatzen dira; berdin beldurrez mintzo direnean. Adin hauetan, mutilen beldurrak minari, istripuei, heriotzari... lotuta daude gehienbat, akzioari eta arriskuari lotuta. Neskenak berriz, edo irudi fisikoan edo genero indarkerian daude fokalizatuta: “Kontatzen dute gauean etxera heltzean lagunei mezua bidaltzen dietela esateko etxera heldu direla, giltzak eramaten dituztela eskuetan etxera bidean, mutil kuadrilla handi baten aurretik pasatzea zergatik den deserosoa, tabernan bakarrik gertatzeak zergatik beldurtzen dituen... eta mutil ugari entzuten diezu hori guztia ez zekitela beraiek, berriak direla kontu horiek haien zat, horregatik da inportantea mutilek hori guztia entzutea, ez baitira urruneko estatistika baten datuak, ikasgelan ondoan esertzen zaizun nesken bizipenak baizik”. Mutil batzuek begiak zabaltzeko balio duela dio Hezkidetzaren arduradunak, “eta azkeneko entzuten diezu ‘kuadrillan gaudenean guk ez dugu nahita inor izutzen, baina ulertzen dugu builaka eta taldean bargaude, gure aurretik oinez bakarrik pasatzen den neskek beldurra sentitu ahal izatea’, eta hori jada lorpen handia da niretzat”, onartu digu Rubiok.

Mutilek salatzen dute eurekin ere antzera jokatzen dutela neskek. Eta hala da, baina ikerketek diote hasierako urratsetatik harago ez duela eskaileran gora jarraitzen mutilak, nekatu eta moztu egiten duela

Neskentzat ere ariketa baliagarria da, “halakoak partekatzerakoan ikusten dutelako ez direla tuntuak edo ahulak beldur horiek sentitzeagatik, egiturazko arazo batek eraman gaituela horrelakoak sentitzera: ez zara beldurtia, mutila ez da zu baino ausartagoa, ez da zuregatik, gizartean errotuta dugun errealtateagatik baizik”. Hori partekatzea ere ahalduzkoa da, egoerak ulertzeko tresnak ematea, azaldu du irakasleak.

NOLA LANDU GAIA MUTILEKIN?

Neskek ahalduzkoa eta tresnak ematea du helburu Indarkeriaren Eskailera, baina mutilen ardura da indarkeria matxistatik ez eragitea eta lanketa behar-beharrezkoa da haiekin ere. Hezkidetzaren arduradunaren hitzetan, mutil talde handi bat dago ulertzen duena azalduzko egoerak ez direla normalak, baina eskolan gaia jorratzen denean eraso egiten zaiela sentitzen dute batzuek, nekatuta daude biktima eta erasotzailearen diskurtsoaz. “Horiekin lan handia egitea dagokigu, maskulinitate berriez, bestelako eredu eta aukerez... eta modu eraikitzailean egiten saiatzen gara, mezua ez dadin izan ‘hau gertatzen da ni mutila naizelako’, baizik ‘zer egin dezaket nik mutil gisa, hau ez gertatzeko’, baina gauza bat argi dago: indarkeria matxista da gizonak eragindako indarkeria, eta mezu hori ezin da saihestu”.

Gakoa, Beatriz Rubiorentzat, curriculum da, txikitatik ohitu daitezen ikasgaia dena dela ere maitasun erromantikoa sustatzen ez duten testuekin edo generoaren araberrako estereotipoak indartuko ez dituzten ariketekin lan egitera. Ekintza ikusgarriak ongi daudela dio, “martxoaren 8ko ekaitz egun hori behar dugu, baina baita eguneroko zirimiria ere, ez dadin izan nik tarteka egiten dudana zerbait, ‘badator hezkidetzakoa matraka ematera’, egunerokoan zipriztinduko dituen ikuspegia baizik”. Bi adibide aipatu dizkigu: gimnasia erritmikoa egiten duen mutil bizkaitar bati buruzko testua landu berri dute Euskara ikasgaietan, eta eurentzat hezkidetzarekin lotuta ez dagoen arren, bestelako erreferenteak jaso dituzten balio izan du. Bigarren adibidea Historia ikasgaikoa da: “Industria Iraultza eta Lehenengo Mundu Gerra ikasten dituzte, baina boto eskubidea lortzeko ehun urtez emakumeek egin dako borroka ez; hori aldatzeko, Historiako irakaslearekin batera materiala eta apunteak prestatu eta sufragismoa jorratu dute”.

Gainera, emakume irakasle gazteak, hezkuntza sisteman orain sartzen ari direnak, feminismoan oso jantzita ikusten dituela dio Rubiok, eta aliatu lagungarriak zaizkiola eskolan. Gizon irakasle gazteen artean ere, maskulinitate hegemonikotik aldentzen direnak ugari dira, eta erreferente horiek oso positiboak dira ikasleentzat.



Ezkerrean, Beldur Barik lehiaketarako bideoa egin duten eta Irungo lehenengo saria irabazi duten Toki Alai ikastetxeko ikasleak, senide eta irakasleekin; bideoan Indarkeriaren Eskailera antzestu dute. Eskuinean, Indarkeriaren Eskaileraz hitz egiteko erabiltzen duten ikus-entzunezkoetako bat: "Egunon printzesa!" film laburra.

ERRESISTENTZIA ANTOLATUAK

Mutil askok begiak zabaldu ohi dituela esan dugu, baina badira beste mutil batzuk errealitatea ikusi nahi ez dutenak, eta erresistentziak gero eta handiagoak direla, gero eta sarriago gertatzen direla eta gero eta intentsitate altuagoa dutela ohartarazi du irakasleak. "Gelan aurre egitea ez da kezkatzekoa, batzuetan aurre egitea bera da helburua, nerabezaroan daude, baina azaroaren 25ean zintzilikatutako pankarta erre ziguten, suhiltzaileek etorri behar izan zuten, eta martxoaren 8an ere, emakume esanguratsuekin jarri genituen argazkiak erre eta suntsitu zizkiguten. Eta orduan pentsatzen dut mutilekin gaia ez garela ongi lantzen ari, ez garela ari asmatzen eta gehiago eta hobeto egin behar dugula. Aldi berean, nire buruari esaten diot agian feminisमतik ongi egiten ari garen seinale ere badela; azken finean, errealitatea da desboteretze prozesu bat egin behar dutela gizonek eta bere lekua kolokan sentitzen du hainbatek, horregatik jokatzeko dute horrela".

Erresistentzietan indarra hartzeko beste faktore bat nabarmendu du Hezikidetzaren arduradunak. Belaunaldi berriek apenas kontsumitzen duten telebista, nahiago dute Youtube, eta bada youtuber korrante bat genero indarkeria ukatzen duena, genero indarke-

riaren negazionistak direnak. Bada, ikasleak, mutilak gehienbat, youtuber hauek ikusi eta diskurtso horiek errepikatuz joaten dira eskolara. Adibide praktikoa bat egin dute klasean: Beatriz

Youtuber korrante batek genero indarkeria ukatzen du eta ikasleak diskurtso horiek errepikatuz doaz eskolara. Internetek duen burbuila efektuagatik gainera interpretatzen dute ikuspegi hori dela nagusia

Rubioren ordenagailuan "genero indarkeria" hitzak sartu dituzte Google bilatzailean, eta gauza bera egin dute youtuber horietako bat ikusi duen ikaslearen ordenagailuan. Bati eta besteari bilatzaileak eskaintzen dizkion edukia erabat ezberdinak dira: "Sareak diskurtso bera elikatu egiten du behin

eta berriz, eduki bat ikusi eta antzeko beste lau erakutsiko dizkizulako Googlek, eta ikasleak sarri interpretatzen dutena da ikuspegi hori dela nagusia. Internetek burbuila efektua sor dezakeela ulertzeko erremintak eskaintzea inportantea da".

AURRERA EGIN AL DUGU?

Erresistentziak erresistentzia, belau-naldi gazteak oro har begiak zabalitzen ari direla uste du Beatriz Rubiok. "Sexualitatearen esparruan adibidez keinuak ikusten dira, askatasun handiagoa nabari da nesken artean, eta pentsatu nahi dut maitasun erromantikoaren mitoa ere gaindituko dutela". Azken finean, DBHko ikaslearen adina adin konplikatu dela dio, nerabezaroa bor-bor dago, errebelde izateko grina hori... "Batxilergoan ikusten da neskak ahalduago daudela jada, eta kapazago dira aipaturiko jokamoldeen atzealdea ikusteko, azkarrago identifikatzen dituzte tratu desagokiak eta mugak azkarrago jartzen dituzte. Paradoxikoki, bikote harreman toxikoen kopurua handiagoa da, harreman gehiago dituztelako adin honetan, DBHn baino". Horregatik jarraitzen du izaten inportantea Indarkeriaren Eskailera lantzea, inork ez dezan min ematen digun harremana maitasunarekin nahastu. ●

“Ongizate estatuaren nostalgia sustatzen da, baina hori ahalbidetu zuten baldintzak ez dira existitzen”



1953an Asturiasen jaio eta azken hamarkadetan Katalunian bizi da Corsino Vela (ezizena). Berriki bira egin du Euskal Herrian *Capitalismo patológico* liburua aurkezteko. Donostiako Kaxildako lagunen eskutik atera duen lan honek jarraipena eman dio *La sociedad implosiva* (Muturreko Burutazioak, 2015) eta *Capitalismo terminal* (Traficantes de Sueños, 2018) lanekin abiatutako analisiari. Berarekin elkartu gara Bilbon.

 AITOR ASPURU

Nahi gabe kapitalismoari buruzko trilogia osatu duzu, eta horri eman zenion hasiera *La sociedad implosiva* liburuarekin. Hor azaldu zenuenez, kapitalismoaren motorra behin betiko izorratu da.

Arrazoi nagusia da kapitalismoa zabalteko aukerak munduan, hau da, kapitala balorizatzeko eta metatzeko prozesua, geroz eta mugatuagoak direla. Hori islatzen da esplotaziorako esparru berriak aurkitzeko ezintasunean, lan indarrari zein bitarteko naturalen ustiapenari dagokienez. Egia da esplotazioak jarraitzen duela oraindik, baina ez da munduko ekonomia suspertzeko gai.

Egitura arazo hori krisi ekonomiko eta sozioekonomikoetan adierazten

da, adibidez, 2008an, finantza krisiaren itxurarekin, higiezei lotutako hondamendiaren ondorioz. Baina ez gara okertu behar, banku, hipoteka eta higiezin krisialdia dira kapitalismoaren krisialdiaren ondorioa, eta ez arrazoia. Horren erroa da kapitalismoa ez dela gai lortzeko etekin tasa nahikoa hazkunde ekonomikoa bermatzeko.

Aurretik ez da horrelako une larririk bizi izan historian, baina baldintza “subjektiboei” erreparatuta, kapitalismoari erantzuteko gaitasuna behar historikoren oso azpitik dago. Horren adibidea da sindikatuen atzera-egitea; lanpostuaren defentsa aldarrikatzen da garai batean zeinean herrialde garatuetan, berregituraketak direla medio, klase kapitalistak



ez duen beharrezkoa ikusten lan indarraren mantenua bere kapital metaketa ziurtatzeko. Gauzak horrela, lan indar hori botatzen dute merkatutik.

Uste duzu pandemiak batu eta bultzada eman diela kapitalismoak atzeratu dituen krisialdiei, zorrarena eta deslokalizazioarena, adibidez.

Pandemiak azkartu ditu egiturazko kri-



sialdiak. Oro har, kapitalismoak eragin du produktiboak ez diren jardueren neurrigabeko hazkundea. Horrela aitortu dute gobernuek, hainbat sektore ekonomiko ez zirela funtsezkoak adierazita. Produktiboekin alderatuta, sektore horiek gehiengoa ziren. Eta gainera, produktiboak ez ziren inoiz eten.

Hemen saldu da krisialdi sozioekonomikoa izan dela osasun krisialdiaren eragina, eta kontrakoa izan da. XX.

mendeko azken hamarkadetatik kapitalismoa ihesaldian dago hainbat krisialdi izkin egiteko. Horietako batzuk azaleratu ziren 2008an, eta bankuak erreskatatu eta lan indarra gainespilotatu arren, ez da nahikoa izan hazkunde ekonomikoa eta kapital metaketa lortzeko. Pandemiak sakondu eta azkartu ditu arazo horiek modu saihestezinean, erreproduzio prozesu guztiak etenda.

Aipatu duzu kapitalismoaren atzetik dagoela hainbat krisialdi, hori azalduko zenuke hobeto, mesedez?

Deslokalizazioak, hasieran, emaitza onak ekarri zituen eta kapital kopuru handien metaketa sortu zuen. Ordea, produktioa hartu zuten Hegoaldeko herrialde horietan errepikatzen ari dira, II. Mundu Gerraren ondoren, kapitalismoaren erdigunean gertatu ziren baldintzak;

langile mugimendu fordistaren gorakada, hain zuzen. Hori dela medio, Asiako zenbait sektore deslokalizatzen ari dira berriro. Adibidez, ehungintza, Txinatik Vietnamera eta Kanbodiara eramán dute berriki.

Horrek esan nahi du kapitalaren negozio zikloa, metaketan eta inbertsioaren itzuleran oinarrituta, gero eta laburragoa dela. Hain motza izanik, kapitalen arteko lehiakortasuna oso handia da, eta ezegonkortasuna sortzen baita merkatuan, gizartean eta klase agintariaren artean.

Bestalde, kreditua mekanismo baliagarria izan zen kapitalaren zabalpenarako eta orekatzeko lan indarraren baliogabetzea herrialde kapitalistetan. Azken hori deslokalizazioak sortu zuen. Kredituak erraztu ditu kontsumoa eta hipotekak, baina langile klasea hain prekariora bilakatu da deslokalizazioagatik, ezinezkoa zaiola kreditua itzultzea.

Horrek eragin du, aldi berean, bankuen porrota. 2008an hipotekei lotuta izan zen, baina orain daude higiezinak kredituak, enpresenak, norbanakoak, eta estatuenak. Are gehiago, estatuek ongizate gizartea ahalbidetzeko zor publikoa emititu dute eta hori ere elur bola da. Zorren interesak –ez zorrak berak ordaintzeko kreditu gehiago eskatzen dira. Horren eskutik dator herrialdeen arteko menpekotasuna areagotzea.

“Kapitalismoa suspertzeko beharrezko litzatekeen kontsumismo maila ez da jasangarria biosferarako”



Herrialde batzuek erosi dute beste batzuen zor publikoa, kasu batzuetan pentsio funtsen bidez. Kontraesankorra badirudi ere, dirua utzi duten nazioek, dirudunek, ezin dute zordunak erortzen utzi eurak ere atzetik joango lirateke eta. Hor dago Greziaren kasua. Azkenaldian hedabideetan hasi da agertzen gai hori. Pandemiak azkartu ditu gobernuen zorrak, larrialdi egoerari aurre egiteko kreditu berriak erabili baitira. Europako

berregituraketa plana bide horretatik doa.

Azken liburuan iradokitzen duzu lan eredu asko ez direla produktiboak ezta beharrezkoak ere, eta lan indarra, alegia, langileria, desagertzeko arriskuan dagoela.

Pandemiak jarduera ekonomikoaren etenaldi orokorra eragin zuen; produktzioa, zerbitzuak, garraioa... Horren aurrean larrialdiko erantzuna izan da herritarren biziraupenerako gutxiengo baldintzak bermatzea, hornidura katearen bidez.

Testuinguru horretan, “funtsezko jarduerak” leloak azaleratu du, hasteko, badagoela lan ez produktibo izugarria. Batzuetan, gainera, kaltegarria da lan hori, kaltea sortzen baitu ingurumenean edo gizakiengan. Baina kapitalismoaren metaketarako ezinbestekoak dira jarduera horiek. Beste muturrean, badaude gizartearen jarraikotarsunerako mesedegarriak diren jarduerak, bizitzarako. Pandemiak azaleratu du dikotomia edo kontraesan hori.

Garrantzitsua da ikustea orain ez dela ordua azpimarratzeko ekoizpen egitu-

raren afera, langilego fordistaren zabalpenaren garaian bezala. Orain mahai gainean dagoena da bizitzaren erreproduktzioa. Zentzu horretan, oso egokia eta aberasgarria da feminismoaren kritika politiko eta ekonomiko, horretan eragiten baitu.

Kritika politikoa aipatu duzunez, duela urte asko adierazi zenuen keynesianismoa berpizteko saiakerak zentzugabeak direla eta horretan aritzen direnak “kapitalaren ezkerria” izendatu dituzu.

Keynesianismoaren arrakasta etorri zen garapen kapitalistaren eskutik, II. Mundu Gerraren ostean. Hain zuzen, deslokalizazioa eta finantzarizazioa izan ziren keynesianismoaren mugei erantzuteko tresnak kapitalaren aldetik. Kapitalaren ezkerriak, hau da, kapitalismoaren bizi baldintzak kudeatzen dituen ezkerriak, berpiztu nahi du keynesianismoa, ongizate estatua konterbatuta. Hori ez da bideragarria, inbertsio gaitasunaren gainbeherak eta merkatu berriak sortzeko ezintasunak kapital metaketa saihesten baitute,



nahiz eta periferiako herrialdeetan lan indarra eta bitarteko naturalak gainesplotatu.

Edonola ere, kapitalaren ezkerak ez du modu kritikoa berrikusi keynesianismoa. Ongizate estatu hori bakarrik izan zen bideragarria II. Mundu Gerraren ondoren, kapitalaren zabalpen fasea gertatu zelako; dena berreraiketzeke zegoelako eta lan indarra esplotatu zelako. Ahaztu gabe Afrika, Asia eta Amerikako bitarteko naturalak lapurtu zirela eta kapitalismoaren herrialde zentraletan bukatu zuela aberastasun horrek guztiak.

Azkenik, ongizate gizarteko kontzeptua kontsumoari lotuta dago. Laburbilduz, kritika barik, ongizate estatuaren nostalgia sustatzen da, aintzat hartu gabe hori ahalbidetu zuten baldintzak ez direla existitzen, edo behintzat, posible direla gero eta jende gutxiagorentzat.

Kontsumismoaren harira, kritika moraletik harago, zure aburuz gero eta jende gutxiagok kontsumitu ahal izango duela eta horrek, aldi berean, gehiago hondoratzen du kapitalismoa.

Ongizate gizartearen zabalpen fasean agertzen den kontsumismoaren kritikak, 1968ko Maiatzak, adibidez, osagai morala zuen. Egun, osagai morala baztertu gabe, kontsumismoa adierazten da premiazko arazo historiko bezala: kapitalismoa suspertzeko beharrezko litzatekeen kontsumismo maila ez da jasagarria biosferarako. Fisikoki ezinezkoa da eta hori muinean dago.

Dena den, kontsumismoa herrialde kapitalista zentraletan hasi da kaltegarria izaten kapitalaren metaketarako ere, birziklatze kostuak direla medio. Zentzugabeko jardura hori, bizitzarekin kontraesanean dagoena, bere gain hartu ezin duen gastu bilakatu da kapitalarentzat.

Konponbideak edo formulak ematearen kontrakoa bazara ere, etorkizunean bi bide ikusten dituzu. Edo kapitalismoaren joera jarraitzea behin betiko, kolapsora heldu arte, edo erresistentziak egituratzea, alderdi eta sindikatuen paradigmatik at.

Pandemiak agerian utzi du eredu kapitalistaren krisialdiak noraezean utzi duela kapitalari erantzuteko borroka eredu. Horrek ekarri du sindikalis-

moaren eta ordezkartza politikoaren moduen krisialdia, esaterako. Demokrazia birsortu nahi zuten ezkerreko mugimenduen zaharkitzea bistakoa da, M-15 plazetan agertu zen 2011n eta jadanik agortu da. Ez dira gai kapitalismoaren krisialdiari irteera emateko, krisialdia betiko heldu delako, etengabea izango da, kapitalaren logikatik ez bagara ateratzen.

Paralisi egoera honetatik irteteko, kapitalismoaren krisialditik ateratzea baino –atzera egingo ez duen prozesu historikoa baita–, mahai gainean jarri behar da kapitalismotik ateratzeko premia.

“Ongizate gizartearen estatura ez da bideragarria, kapitalaren inbertsio gaitasunaren gainbeheragatik eta merkatu berriak sortzeko ezintasuna dela medio”



Hori lortzeko bilatu behar dugu esperientzia autonomoetan, antikapitalistetan, langilegoaren erresistentzian, zeinetan kapitalaren aurrean borroka-komunitateak eratu diren, baina ez errepikatzeke era nostalgikoan. Egin behar duguna da euren haritik tiratu, egungo gatazkak abiapuntu hartuta, joera komunitarioak berriro definituz. Uko egin behar diogu pentsatzeari borroka horiek helburuak edo alternatibak direla, marxismoak edo anarkismoak proposatzen duten moduan. Aldiz, joera posible baten moduan landu behar ditugu. Izan ere, usteltzen ari den kapitalaren logika edo erresistentzia komunitarioaren proposamenak –bizitzeko edo elikatzeke beste moduak eta harremanak– gatazketan gailenduko dira, indar harremanen arabera. Ez da programa bat, baizik eta gatazka bakoitzean ulertu behar den joera, gauzatuko dena ala ez.

Bukatzeko, *Ciclismo y capitalismo* liburua ere aurkeztu duzu, nola sortu zen testu hori?

Liburuaren jatorria da zaletasuna, txirrindularitzaren zale naizen neurrian, bitxia iruditzen zait bizikletak eta sistema kapitalistak garapen paraleloa izan dutela. Txirrindularitza bera, ikuskitzun moduan, merkataritza fenomeno bada. Gauzak horrela, soilik azpimarritu nahi izan dut paradoxa hori, emozio subjektiboaren eta logika kapitalistaren artean. Zentzu horretan, bizikleta eta txirrindularitza dira gizarte kapitalistaren produktuak.

Liburuan ibilbide historikoa egin dut. Adibidez, bizikleta literatura objektu eta gai errepikakorra izan da XX. mendean. Bizikleta bera eta txirrindularitza hainbat aldiz agertzen dira eleberrietan. Industria produkzioaren eta ikuskizunaren aldetik aztertu dut txirrindularitza. Izan emakumezkoa edo gizonezkoa, bizikletarekin harremana mantentzen duen industria da, beharginak lantegiarekin bezala. Zentzu horretan, kritika bat da txirrindularitzaren ekonomia politikoari, baina baita txirrindulariaren aldarrikapena eta defentsa ere, subjektu proletarizatua baita, eta esplotazioaren burdinezko legeen menpe baitago. ●

1990ean sortua

BRINTZA
AHOLKULARITZA - CONSULTORIA

Aholkularitza zerbitzu ezberdinak eskaintzen ditugu

- Zerga-ordainketak
- Merkataritza
- Kontabilitatea
- Legedia
- Lan esparrua

Urbieto, 15. Hernani.
943 33 12 67
Brintza.com

Amerikan ikasitakoari ginga jartzen

Lazkaoko Maizpide euskaltegian

Euskara ikasle eta irakasle dira Hego Amerikako beren herrialdeetan. Gainera, bestelako lan eta ogibideak dituzte. Haietako hamaikak hango kontinenteko udako oporraldia baliatu zuten urtarriletik otsailera Lazkaoko Maizpide euskaltegira etorri eta beren buruak are gehiago trebatzeko. Andrea Bella, Begoña Tisera eta Alfredo Laborde ditugu adibide.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Etxepare Institutuak garatzen duen Euskara Munduan programak lotzen ditu Lazkaoko Maizpide euskaltegian izan ziren hamaika ikasleak. Andrea Bellak esan zigun: “Internetez ikasten dugu, batetik, eta bestetik, berriz, barnetegiak egiten ditugu gure herrialdean, hala neguan nola udaro. Aste bana irauten dute”. Argentinako zenbait herri txikitan nahiz Montevideon egiten dituzte aipatu barnetegiak. “Garai batean Txilen ere egiten zuten ikastaroa”. Begoña Tisera Etxeberriaren zehaztapena: “Bertako euskal etxeen egoitzetan izaten dira”.

Beren herrialdeetan ikasia han bertan praktikatzeko aukerarik badutenez galdeturik, Mintzanet egitasmoa goretsi du Bellak, euskara sarean praktikatzeko bidea. “Guztiz baliagarria da. Batak bat, jariatasuna lortzeko. Horretan, asko laguntzen du mintzalagun edo bidelagunak”. Ildo beretik mintzatu zaigu Alfredo Laborde: “Tres Arroyosen ez daukagu euskaraz hitz egiteko modurik, eta beraz, Mintzaneten eman nuen izena. Horren bidez, oraingo egunean

mintzalagunak dauzkatzat”. Horietan du, adibidez, Rafael Retegi Iturbide, Bortzirietakoa, Igantzikoa. Bost urte dararamatzate Labordek eta Retegik harremanetan eta aurrez aurre ere ezagutu zuten elkar. “Orain, laguna dudala esan-gu nuke”, dio Labordek.

“Guretzat inportantea da jendeari euskaraz entzutea, euskal girorik ez baitugu San Nicolasen, ez Tres Arroyosen”

Begoña Tisera

Tiserak Ainara Maia Urrotz olerkaria du bidelagun. Aspaldiko kidea, inondik ere. “Aurrez aurre ezagutu nuen behin eta Argentinara gonbidatu nuen 2009an, Buenos Airesko euskal astera, San Nicolaseko euskal etxeak festa handia egin zuen orduan. Horrelaxe ezagutu genuen batak bestea”.

Andrea Bellaz den bezainbatean, duela zazpi urte hasi zen Mintzanet baliatzen. Badu bidelagunik: “Anizeto Ajuriagogeaskoa, muxikarra”. Hura Bellaren bidelagun, eta Bella bera, orain, beste bi pertsonari laguntzen: “Inmakulada Gonzalezen eta Josu Agirrerren bidelagun naiz ni orain. Lehena Bergaran bizi da eta bigarrena, aldiz, Bruselan”. Asteazken zehar egin ohi dituzte internet bidezko bilkurak munduko bazter batekoek eta bestekeok. Pandemia garaian, berriz, talde berri bat eragin zuen Bellak sarean: “Jalgi Hadi Mundura ize-nekoa. Asteartero eta larunbatero bina orduko saioak izaten ditugu ordenagailuaren aurrean”. Eta, tartean, hainbat ekintza antolatzen dituzte, liburu irakurketak eta gainerako.

HERRIALDEAN EUSKARAZ

Asko ez, gutxi dira euskaradunak beren herrialdeetan. Nekezia handian dituzte euskaraz hitz egiteko tartea. Bellaren kasuan, alabaina, lau euskara irakasle dira Montevideon eta gutxi-asko egunero jarduten dute euskaraz whatsapppe edo bideo-deiak eginez.

Labordek ez du maiztasunez euskaraz jarduteko erarik, nahita ere. “Neska bat bada Tres Arroyosen, ni bezala euskaraz ikasten ari dena. Lanpetuta bizi da, ordea, eta zaila da bat egitea. Bestalde, hura hiru urte ere izan zen hemen bizitzen, neska azkarra da, gainera, eta oso garbi mintzatzen da”. Tiserak lehen irakasle izan zuena du laguntzaile, Natalia Ormazabal, hiru urtez gure artean bizitua. “Baina gaztelaniaz egin genuen lehen harremana

eta orain zaila zaigu gure artean hizkuntzaz aldatzea. Hala ere, Mintzaneti esker harreman estuetan naiz durangar batekin: Josune Aranguren Zatika du izena”. Harekin bai, euskaraz ari da behaztoparik gabe.

Hizkuntzaz aldatzea dela-eta, Bellak ez dio inori barkatzen, euskaraz ahalegintzen baita ahizparekin, berak baino lehen euskaraz ikasitakoarekin. “Kostata egiten diogu euskaraz batak besteari...”. Esan orduko hartu du zia boga: “Tira, niri ez, berari kostatzen zaio! Ni euskaraz saiatzen natzaio, baina berak kostata erantzuten dit euskaraz. Maizpiden gaudela, ikasle batek proposatu dit etxeko leku jakin bat izendatzea, bi ahizpok han euskaraz besterik ez egiteko. Ideia ona iruditu zait”. Asmo horixe buruan duela da Bella Montevideon...

IKASLE BEZAIN IRAKASLE

Ikasle izan ditugu Maizpiden, eta aldiz, ikasle bezain irakasle dira beren herrialdeetan. “Euskarazko klaseak ematen ditugu, batzuek Uruguain, beste batzuek Argentinan... Eta gustura ari gara, benetan”, dio Tiserak.

Irakasle izatea baita Euskara Munduan programaren helburua, Bellak adierazi digunez: “Programa honetan, ikasten hasten garenetik ematen ditugu klaseak. ‘Irakasle’ deitzen gaituzte”. Badu, hala eta ere, hizkuntzaren didaktikari buruzko kezkarik: “Ez baitugu irakasteko prestakuntzarik jasotzen. Niri dagokidanez, euskara irakasle ez ezik, andereño naiz ogibidez, eta prestakuntza zerbait jaso nuen bere garaian. Nire aldetik, horixe falta zaio programa honi, hizkuntzaren didaktikari buruzko ikus-



Andrea Bella

Montevideo, 1978

Izana dugu orain baino lehen ere ARGIAren orrialdeetan (2014, otsailak 16). Dударik gabe, duela zazpi urte baino askoz trebeago ari zaigu euskaraz. 2008an hasi zen ikasten, HABEren Euskara Munduan programan eta programari halaxe baitagokio, ikasten hasi orduko ari zen irakasle. Oraingo egunean Montevideoko hainbat euskal etxetan eta internet bidez ari da irakasten. “Eta euskara ikasle naiz, betiko! Bertsolaritza lantzen ari naiz eta hika praktikatzan”.



Alfredo Laborde

Tres Arroyos,
Buenos Aires, 1961

Zortzi urte daramatza euskara ikasten, Euskara Munduan programaren bitartez. Donostiarra zuen birraitona eta horrexek jarri zuen euskara ikastera. Bada besterik, ordea: “Familia lotura horrez gain, euskara hizkuntza zoragarria iruditzen zait. Zalantzarik gabe”. Langile da pasta lehor fabrika batean Tres Arroyosen eta euskara irakasle bertako euskal etxean. Hika ikasten ari da.



Begoña Tisera Etxeberria

San Nicolas,
Buenos Aires, 1964

Bilbon jaioa du ama. “Aspaldi hasi nintzen euskaraz ikasten. Lehenengo, ohiko klaseak jaso nituen hainbat urtez eta, gero, Euskara Munduan programaren barruan. Euskara ondo ikastea da nire asmoa, euskara maite-maite dut, benetan”. Etxekoandrea da, zeinu-hizkuntza irakasle, eta euskara irakasle Rosarioko unibertsitatean. Hamabost-hogei ikasle inguru izan ohi ditu. “Mintzaneteko arduradun Ritxi Lizartzari bisitatxoa egin genion Donostian eta hika ikasteko liburua oparitu zigun. Ez dakit noiz izango dudan ikasteko modua...”.

pegia edo prestakuntza eskaintzea". Zenbait tresna baino gehiago, alegia.

Zurubi berean baina beste koska batean da Laborde. Apalagoan. "Klasea ematea aukera ona da gure euskara maila hobetzeko. Irakasten ari garenean, ikasten ari gara... Aldi berean, zein maila dudan konturatzeko ere balio dit eta, horregatik, egunero saiatzen naiz ikasten, irakurtzen, musika entzuten...".

EGONALDIA MAIZPIDEN

Tiserak eta Labordek lehen ikastaroa dute Maizpiden. Bella lehen ere izana da eta badaki zer den pandemia egoerarik gabeko bisita. "Duela zazpi urte hemen izan nintzenean, lagunak bisitatze-ko aukera izan nuen, batera eta bestera joan eta hau eta hura. Orain ez, orain ezin euskaltegitik ateral!", kexu da. "Gainera, egoera normala izan balitz, familietan hartuko gintuzketen. Orain, aldiz, maskara, distantzia... Baina pandemiak pandemia, guztiarekin ere gozaten ari gara, une bakoitzaz gozaten". Aukera

bezala bizi du Tiserak ere. "Bai, aukera izan dugu, eta aprobetxatzen ari gara!", esan du irribarrez.

Gelaz barruko jarduerak ez ezik, ha- maika izan dituzte bestelakoak, beren herrialdean ez duten aukera izan deza- ten Lazkaon. "Bertako jendearekin hitz

“Pentsatzen dut euskarak aberasten gaituela: euskaldun berri izan nahi dut”

Alfredo Laborde

egiten saiatu gara. Tertuliak ere antola- tu izan dituzte, eta Maritxu izeneko an- dereño bat ere izan genuen, ikastolaren sorrerari buruzkoak kontatzen. Patxi Teilatu, Jon Maia bertsolaria... hainbat

bisita jaso ditugu. Maizpideko irakasle eta arduradunek, bestalde, taldeak antolatzen ere jardun dute, bi ikasle eta herritar bat harremanetan jarritz, guk euskaraz hitz egiteko aukera benetakoa izateko", esan digute. Hala ere, ez dira inoren zain bizi, euren atera nahi dituzte babak eltzetik, Bellak esan digunez: "Hortxe gabiltza beti gu, mintzalagun bila, han eta hemen!". Eta bat dator Tiserak: "Hitz egiteko lagun bila eta entzuteko ere bai! Guretzat bereziki inportantea da jendeari euskaraz entzutea, euskal girorik ez baitugu San Nicolasen, ez Tres Arroyosen. Beharbada, aukera handiagoak dituzte Buenos Airesen diren euskaldunek... Ez dakit". Labordek bere ezinak erakutsi dizkigu: "Niri asko kostatzen zait jendeari euskaraz ulertzea. Dena dela, mintzapraktika egiten saiatzen naiz momentu guztietan". Tiserak ere badu ezinik: "Niri jariotasunez hitz egitea kostatzen zait. Hala ere, lehengo batean, batek esan zidan nire azentua Hondarribikoaren antzekoa dela. Kar, kar... Ez dakit, bada! Ez naiz



Ezkerretik eskuinera Alfredo Laborde, Begoña Tisera eta Andrea Bella. Hiru ikasle-irakasleak Lazkaoko Maizpide euskaltegiaren atarian.

Hondarribian inoiz izan, baina Irungoa dut mintzalaguna! [Ainara Maia Urrotz] Kar, kar!.".

LAZKAOTIK AMERIKARA

"Euskara are gehiago praktikatzea, euskaraz bizitzea, Euskal Herriaz gozatzea, jendea ezagutzea..." asmo horiexek ekarri zituen Bellak Montevideotik Lazkaora, eta "pozik gaude" esanez laburtu du egonaldia. Milaka kilometroko bidea egin dute euskaraz ikasteko, Euskal Herriari askok pausorik ematen ez badu ere. Bellak badu anekdotarik. "Hemen jende asko ez da euskaraz bizi, eta hitza gaur egun itsusi samarra bada ere, jendea kutsatzea da gure asmoa! Kar, kar... Hara!, Donostian izan nintzen lehengo batean. Denda batera sartu eta euskaraz ni. Dendariak ez zekien eta esan nion:

“Pozik ikasten dugu, eta poz horixe transmititzen dugu irakasten hasten garenean”

Andrea Bella

'Ni Uruguaitik etorri naiz hona eta euskaraz ari naiz. Eta zuk ez dakizu?'. Gaitz erdi, ulertzen zuen, eta euskaraz egin nion hasi eta buka". Laborderi bihotza hausten dio egoerak: "Pena ematen dit hemengo askok euskaraz ez jakitea, edo ez hitz egitea. Pentsatzen dut euskarak aberasten gaituela: euskaldun berri izan nahi dut". "Bazara!", erantzun diote ondokoek, baina tematsu da Laborde: "Saiatuko naiz izaten".

Tiseraren kasuan, pozik dago eta inondik ere pozikago bere ama bilbotarra: "Ama oso harro dago ni euskaraz ikasten ari naizelako. Berak ezin izan



Maizpide euskaltegian izan ziren urtariletik otsailera Hego Amerikan euskaraz ikasten eta irakasten ari diren lagunak.

zuen euskararik ikasi, Francoren garai-ko debekuak tarteko. Ama oso harro eta ni neure bidea egiten. Eta, benetan, me-rezi du!".

Arestian ibili duen hitzari heldu dio orduan Bellak: "Baliteke kutsatu hitza gaizki ikusita egotea orain, baina gustatzen zait esatea Montevideon jendea kutsatzen dudala. Hasteko, familia. Oraindik orain, alabaren urtebetetzea izan dut, eta *Zorionak, zuri!* kantatu nion, ez gaztelaniazko kantarik! 19 urte ditu eta ohituta dago. Alaba ez ezik, familia osoa dago ohituta! Kar, kar!". Bat dator horretan Tisera: "Hainbat urte dar-matzagu euskaraz ikasten eta gurekin batera gure familiek!". Labordek alaba ekarri du hizpidera: "Euskaraz ikasten ari nintzela alabari esan eta pozik zen bera!". Bellak biribildu du mezua: "Eus-kara maite dugu eta, azken finean, hori-xe transmititzen dugu, hizkuntzarekiko maitasuna, bai familian eta bai ikasleen

artean ere". Horrexek jartzen ditu egu-nero ikastera, euskarazko musika entzu-tera, irakurtzera... "Euskal kulturari bu-ruz asko dakigula esaten digute, musika taldeen eta idazleen izenak eta bestela-koak ezagutzen ditugulako. Jakina, eus-kara irakatsi nahi badugu ikasi beharra daukagu, baina gustatzen zaigulako da, ez da obligazioa. Badakit hemengo as-kok beharrezkoa duelako ikasten duela euskaraz, derrigorrez ikasten duela. Ez dute gozatzen, agian. Guk bai, gozatzen dugu, erabat pozik ikasten dugu eta poz horixe transmititzen dugu gero, irakas-ten hasten garenean". Laborderen ohar-kizuna: "Tres Arroyoseko jendeak ez du ulertzen ni euskaraz ikasten ibiltzea, baina niri berdin zait, ni pozik ari naiz".

Egonaldia buruturik, beren herrial-deetan ari dira hirurak eta haiekin ba-tera Lazkaoko Maizpiden izan ziren gai-nerako ikasle-irakasleak. Txalogarri, eta eredugarri. ●

BABESLETA:

Elkar elikatzen duten burujabetzak

ARGIA ETA OLATUKOOP ELKARLANEAN

Lakari kooperatiba elikagai denda bat baino gehiago da: elikadura arloan zein ekintzaitza sozialean aholkularitza zerbitzua eta ekitaldietarako mokaduak ere eskaintzen ditu. Elikadura burujabetza du helburu, baina lantokian beste burujabetzak ere lantzen ari dira hasieratik: lan, finantza, energia, telekomunikazio eta teknologia burujabetzak.

Lakari sortzeko motiboa lanaren burujabetza izan zela azaldu digute kideek: «Hemen lan egin eta bizi nahi genuen, era burujabeen». Proiektuari forma eman ostean, martxan jartzeko haien zentzua handia zen inbertsioari aurre egiteko mailegua eskatu behar izan zuten, eta finantza etikoen aldeko hautua egin zuten: «Fiarerekin egin genuen, hastapenetik finantza burujabetzaren bidea jorratu nahi genuelako». Gogoratu dute eztabaida sortu zela haien artean, «guretzat finantzazio beharra geneukalako eta zentimoari ere begiratu egiten geniolako; interes-tasak eta altuxeagoak izaten dira finantza etikoen». Baina interesetan guztira alde zenbatekoa izango zen aztertuta zuten zehazki, «3.000 eurokoa zen alde zazpi urtean, eta badakigu diru hori beste proiektu sozial eta eraldatzaileetara joango dela, aldiz, beste bankuetan ez dakigu diru hori zertan erabiltzen den eta kasu askotan, badakigu espekulaziorako edo armagintzarako ere erabiltzen dutela». Beste proiektuei laguntzeko argudioa gailendu zen eta horrela hartu zuten finantza etikoen aldeko erabakia. Baina aitortzen dute «banku tradizionalak» jo beharra dutela egunerokorako, haiek baitira datafono zerbitzua eta kanbioak egiteko aukera eskaintzen dieten bankurak, oraingo.

Bestalde, denda jarri zuten lokalean ez zegoen argindarrik eta Iberdrolak zerbitzua ezartzearen ordainetan bi urtez



bere bezero izatera behartu zituen. «Baina ahal izan genuen orduko Goienerreko bazkide egiteko apustu egin genuen, duela bi urte inguru. Aholkularitza-zerbitzua ere eskaintzen digute eta komunitate baten parte garela sentiarazi digute».

«Hastapenetik teknologia burujabetza ere landu dugu» azaldu dute Lakariko kideek. Sorreratik, teknologia librearen garatu zein aholkularitza-zerbitzua eskaintzen dituen Talaios kooperatibarekin interkooperazio estua izan dute eta «haien aholkuz», hasieratik software librearen aldeko apustua egin zuten: bai dendan kobrantzak egiteko edo erosketak kudeatzeko darabilten programa (Odo), baita ere lanerako erabiltzen dituzten ordenagailu guztietan duten softwarea librea dira. «Orain dela bi urte, gainera, dokumentazio-biltegirako Nextcloud programaren aldeko hautua ere egin genuen, gure zerbitzari propioarekin».

Teknologiaren alorrean pauso bat gehiago ere ematea erabaki dute Jaki tresna propioarekin. Jaki, asteko menu orekatuak, osasungarriak, prezioz duinak eta sasoiko produktuekin eginak lantzeko aukera ematen duen aholkularitza pertsonalizatua da. Hori posible izateko, ezinbesteko gertuko komunikazioaz gain, tresna teknologiko aurreratu bat garatzea lortu dute.

Burujabetzetan azken jauzia telekomunikazioan eman dute, 2020an sortu den Abaila kooperatibaren eskutik: Interneta beraiekin jarri dute. Abaila burokrasia lanak burutzen ari da telefonia zerbitzua ere eskaini ahal izateko, eta hori egiterik dutenean Lakarik haiekin kontratatuko du telefonia: «Eskualdekoak dira, gu Zarautzen gaude eta haiek Zumaian, eta lurralde burujabetzari erreparatuta erabaki dugu haiekin lan egitea».

Azpimarratu nahi izan dute eremuz eremu burujabetzak lantzea «prozesu eta trantsizio etengabea» dela. Ezer ez dela perfektua eta «inkoherentziak kudeatzen jakin» behar dela, eta funtsean «egiteko moduak eta produktuak etengabe hobetzen» joatea dela gakoa. ●



LAKARI KOOPERATIBA
lakari.eus

Zer egiten du: Kontsumo-eredu jasangarria, tokiko laborantza iraunkorraren biziberritzea eta elikadura osasuntsua sustatzea helburu duen erosketari, aholkularitza- eta heziketa-gune kooperatiboa da.

Langile eta bazkideak: 5.

Egoitza: Zarautzen.

Harremanetarako:
info@lakari.eus

BAZKIDETZARI BURUZKO PROZESUA



DANI BLANCO

Bazkideen aginduetara dagoen enpresa

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

8oko hamarkadan zenbait langilek ARGIA proiektuarekin jarraitzeko berena egin zuten enpresa. Ordu-tik langileena da eta bazkide batzarra da organo gorena. Hortik pasatzen dira erabaki estrategiko guztiak, bazkideek onartu behar dituzte aldaketok eta bazkideen artean hautatzen da enpresaren norabidea. Teoria orokor bezala 1980ko hamarkadarako bezala balio dezake honek 2020ko hamarkadarako ere. Baina horren atzean bada, nolabait esatearren, bide-orri bat eta horrek behar du tarteka errepaso bat, garai bakoitzean ikusten baitira behar, konpromiso eta eginkizun zehatzak, eta aldatzen baitoaz bazkideak ere.

Bazkideetza prozesua egin berri dute ARGIAko bazkideek eta gogoetatu dute enpresaren burujabetza izateak dakarrenaz, enpresaren norabideaz, bazkide izateak berea duen parte-hartzeaz, eragin ekonomikoaz, enpresa ereduaz, ardua eta konpromiso pertsonal eta kolektiboaz, bideragarritasunaz, akzioez, herentziaz eta transmisioaren garrantziaz... Bote lasterrean botata hitz potolo eta abstraktu asko diruditen arren, muinean zera da: bazkide izateak zer aukera eta konpromiso (pertsonal eta kolektibo) eskatzen dizkio langileari?

Eta, zer moduz ikusten dugu bazkideok enpresa? Ondoren katean datoz puntu horien guztien eta gehiagoren inguruko gogoetak eta galderak.

Dagoeneko martxan dagoen ereduaren gainean egin beharreko gogoeta da, dena den. Orain dagoena nola dagoen aztertu eta aukera berriak ikusten badira aztertzeke uena da. Laster langile gehiagori egingo diote bazkide izateko proposamena eta hauei gonbidapena egiterako ere lan hau eginga izateak asko lagunduko die denei. Denbora kontua da ARGIAko langile batentzat bazkide egitea, bertan lanean ibilbide bat egin duenean, hurrengo urratsa ematea eskaintzen zaio. Ez dago beste filtrorik. Natural egiten da. Denboraren faktorea hor dagoenez, une honetan langile guztiak ez dira bazkide, baina orain arte, bazkide izatea eskaini zaienean, batek ezik gainerako guztiak onartu dute eskaintza.

Usurbilgo Potxoenea kultur etxean bildu dira bazkideak prozesu honetarako eta, bide batez, aitzakia ederra izan dute aspaldiko partez denak elkartu, taldea egin eta indarrak hartzeko. Gogoetarako bakarrik ez, elkar goxatzeko ere balio baitute momentu hauek eta beharrezkoak baitira taldean. ●

AGENDA

EZ NAIZ KOLONIALISTA, BAINA...

hitza eskainiko du Axier Lopez ARGIAko kazetariak: Gure esklabista eta kolonialistez, Elkanoren mundu biraren V. mendeurrena oinarri

Maiatzak 7

Bermeoko Nestor Basterretxea aretoan, 18:00etan.

Olatukoop sareak, Kooperatibak Denontzat proiektuaren baitan formazio zikloa antolatuta du. Izena emateko, helbide honetara idatzi behar da:

koopdenontzat@olatukoop.eus

Hiru hitzaldiak Errenteria-Oreterako Merkatuzar-en izango dira, 10:00etatik 13:30etara:

INTERKULTURALITATE KRITIKO DEKOLONIALA

Apirilak 30.

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEA ETA KOOPERATIBISMOA

Maiatzak 14.

SENARRA GIZENDU ETA POZTEN DU



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Dagoeneko sabia (*Amaranthus retroflexus*) ezagutuko duzu. Ameriketatik ekarria edo etorria da, eta gurean oso zabaldua. “Safia” eta “sasi” ere esaten zaio, baita landare askoren izen den “almitz” eta “elmitz” (albitz eta elbitz) ere. *Amaranthus* generoko beste batzuk ere badira Euskal Herrian, ezagunena Mediterraneo aldetik ekarritako korkotza (*Amaranthus blitum*).

Sabia Ameriketako barazki ezaguna dute, eta hostoa bezala hazia ere jaten diote. Lur emankorren zalea da, landarearen berdea indartzen duen nitrogeno asko dutenena. Hortik berak ere mineral horretan duen aberastasuna. Gure baratze eta soroetan erabiltzen dugun ongarri ugariarekin ederki moldatzen da. Baratzeetan belar “txartzat” badugu ere, gero eta ezagunagoa da gure sukaldeetan. Bere hostoetatik asko eta maiz janean gero, arazo larriak sor ditzake, giltzurrunetan batik batik. Hosto berriak jatea onena.

Hazia oso ona da irinetarako ehotza edo bere horretan ere jateko. Boladan dauden superelikagaien artean dute batzuek. Lehen, eta bai orain ere, makina bat baratzezainek belar txarra zelakoan



WIKIPEDIA

Baratzean lantzeko eta mahaian dastatzeko barazki berriak gustuko badituzu, gora zu! Gaurko hau berri dakizula! Argazkian, Lagosko ziazerba.

kendu eta lurrustelaren pilara botatzen zuten. Ezagutzen zutenek hazkurri zuten, baina ez berea, txerriena baizik, txerri jana. Oso gustuko dute, baina tamainan eman.

Belar bat txarra da bere onura topatzen ez dugun artean. Maiz, aspaldi daki

gure espezieak bere onuren berri, baina denboran urrun edo urruneko kultura batean, eta gaurko eta hemengo guretzako “txarra” da. Agian gure amonaren amonak ezagutzen zuen eta baliatzen zuen, adibidez txerriak hazteko; edo hankapean izan ditugun kulturetan badakite bere berri, baina guk gutxiesten dugu. Kultutzat dugu geure burua, baina ezjakin hutsak gara. Gero etorri zaigu superelikagai gisa, eta burua beharrez soina elikatzen dutenek, txerriek, hobeki esanda, zerriek bezala jango dute.

Sabiaren herengusua da Lagosko ziazerba (*Celosia argentea*). Mundu osoko lurralde tropikaletan ezaguna da, bai naturan bai baratzeetan. Baratzeetakoak ondutako barietateak dira, eta zenbait tokitan ikaragarriko estimuan dute. Nigerian “*soko yokoto*” esaten diote, hau da, “senarra gizendu eta pozten du”. Hostoak, kimu berriak, haziak, dena jaten zaio. Sen-dabelarra ere bada eta lore benetan deigarriak ditu. Baratzean berritu eta lore ikusgarriak erakutsi nahi badituzu edota sukaldean zeresana jarri nahi baduzu, heldu uztarri honi: sabia eta Lagosko ziazerba. ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

📧 Pello Akizu

Duela bi aste lurra goldatu eta simaurtu nuen baratzean. Duda daukat kareharria botatzea komeni zaidan edo ez. Argitzerik bai? Mila esker!

Lurraren ezaugarriak jakin beharko genituzke. Orokorrean, baina, esan

dezakegu oinarrian eta inguruan lur buztintsua baldin badu, karea ondo etorriko zaiola. Lurra harrotuko du, simaurraren lurreratze bidea azkartuko du, pHak gora egingo du, landareak behar dituen elikagaiak errazago mugituko dira eta abar.

Aspaldi karerik ikusi ez badu metro koadroko 150 gramo eman. Urteroko dosia 75 gramo inguru litzateke.

Koxkorra edo hautsa botatzea litzateke beste zalantza. Nik beti nahiago dut koxkorra. Denbora luzez lana egingo du, pixkanaka pixkanaka urtuz. ●

Bidali zure galdera:
bizibaratzea@bizibaratzea.eus

GURE PLATERA GURE AUKERA

ESKOLA-JANGELA EREDUA ERALDATZEKO MOMENTU KLABEA



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

2015ean sortu zen Gure Platera Gure Aukera mugimendua, edo behintzat, urte horretan hartu zuen egungo izena. “Lehenagotik ari ginen zenbait eragile eskola-jangelen gaia lantzen, baina orduan erabaki genuen mugimenduari forma eta identitatea ematea”, azaldu du Eneko Viñuela Bidezko Elikadura elkarteko koordinatzaileak eta mugimenduko kideak. Hainbat alorretako 35 bat eragile –sozial eta sindikalak, baserritarrenak, eskolak eta familiak– biltzen dira egun mugimenduan, asmo argi batekin: eskoletako jantokien eredua eraldatzea. *Sarea sortzen* online topaketa egin zuten martxoaren 27an.



EREDU BERRIA ERAIKITZEN HASTEKO TOPAKETA

Aldaketak lortzeko momentu garrantzitsua dela eta, hainbat eskualdetako taldeen artean topaketa egin zuten martxo bukaeran. “Euskal Herri osoan jantoki eredua eraldatzeko lanean ziharduten taldeen dei asko ari ginen jasotzen azken aldia Gure Platera Gure Aukeran, eta haien artean ezagutzeko eta ideiak eta baliabideak elkarbanatzeko helburuz antolatu genuen topaketa”, dio Viñuelak. Antolatzaileren harridurarako, 75 pertsonak eman zuten izena. “Arrakasta izugarria izan zuen. Bagenekien gaiak interes handia pizten zuela, baina ez hainbeste pertsona aldaketarako pausoak emateko prest zegoenik; uste baino jende gehiago dago gaian inplikaturik”.

SALAKETATIK ERAIKUNTZA FASERA

Mugimenduaren lehen urteetako lanildo nagusia eskola-jantokien egoeraren inguruan jendartea informatzea eta gaiaren zabalpena egitea izan zen. “Eguno jantokiak ez dira ez bidezkoak ezta jasangarriak ere, eta kalitaterik ere ez dute. Horren salaketa lanean aritu ginen batik bat”, dio Viñuelak. Hain zuzen, 2016an zazpi catering enpresek isunak jaso zituzten merkatua haien artean adostu eta familiei iruzur egiteagatik. “Ordutik Jaurlaritza konturatu da egungo eredua zaharkitua dagoela eta hasi

da pixkanaka pauso txikitxoak ematen”, gehitu du.

Salaketatik eraikuntza fasera pasatzeko inflexio puntua 2019ko urriaren 24an eman zen, Legebiltzarrean enpresen iruzurrak ekiditeko eta eskola-jantokien kalitatea bermatzeko hainbat neurri adostu zituztenean. “Akordio horretan sinatu zutenaren arabera, eskolek sukalde propioa edukitzeko eskubidea izanen dute. Egun EAEko eskolen %30ak bakarrik duela kontuan izanda, aurrerapausoa litzateke”. Jantokien kudeaketa eredu osagarri bat eratzeko beharra ere adostu zen bertan.

Indar horrekin eta Hezkuntza Sailean egon diren pertsona eta jarrera aldaketekin aurrerapauso garrantzitsuak emateko momentu egokia dela uste dute mugimenduko kideek. Lau eskoletan urteotan egondako esperientzia pilotuek, gainera, kudeaketa eredu alternatiboak posible direla erakutsi dute. “Osasuntsua, kalitatezkoa, hurbilekoa eta ekologikoa izan den elikadura sistema eraiki beharra dugu eskola-jantokietan ere. Sarea indartzeko lanean jarraituko dugu guk, proiektuak garatu nahi dituzten eskolen bidelagun izaten”. Eskola Kontseiluetan eskaerak egitera dei egiten diete herritarrei. ●

ELIKADURAREN TOP 5

- 1 Ekologikoak
- 2 Bertakoak
- 3 Freskoak
- 4 Sasoikoak
- 5 Lehen sektoreak hornituta

CPAN NNPEK

eko-logikoak

JORGE HERRALDE

“Antzinako totem bat naiz”

1969 urrun hartan abiarazi zuen Jorge Herraldek Anagrama, instituzio bat gaztelaniazko argitaletxeen artean. 2017an erretiroa hartuta, eta 85 urte beteta, gertutik jarraitzen du oraindik editorialaren egunerokoa, bereartzelona etxean aitortu digun gisara.

 **ARITZ GALARRAGA**  **ORIOCL CLAVERA**

Adintsu izan gabe dagoeneko adin bat daukagun irakurleontzat –hain ponposoki adin ertaina deitzen duten hori, ze kondena–, gaztelaniazko argitaletxe erreferenteetako bat da Anagrama, erreferenteena ez bada. Etxeko apalategiei egindako errepasso azkar batek hala ziurtatzen du. Izan ere, besteren etxera sartzen naizenean egiten dudana lehen gauza liburutegia begiratzea izaten da –eta badakit hau aitortuta gehiago gonbidatuko ez nauten arriskua dagoela–, liburu horixka, grisaxka, beltz gisakoak aurkituko ditudan esperantzarekin, etxean bezala sentiaraziko nautenak.

Euskal Herriko gehigarri kultural garrantzitsuenarentzat lanean jada -gaur egunean desagertua-, idazle sorta eder bat elkarrizketatzeko aukera izan nuen, ez dakit mundu mailakoa, bai behintzat nazioartekoa, klase ertain-altua, asko Anagrama taldekoak: Jonathan Coe, Jean Echenoz, Alan Pauls, Juan Villoro esaterako, gertuago Quim Monzó edota Sergi Pàmies katalanak -denak gizonezkoak, puntu negatiboa-. Horietako ez gutxik utzi zuten marka nire ibilbide, ez bakarrik profesionalean, baita segur

aski pertsonalean ere. Honekin guztiarekin esan nahi dudana da nire irakurle bizitza, eta oro har bizitza, oso diferentzia, uste dut okerragoa litzatekeela Anagrama existitu izan ez balitz.


Motxila pisutsu horrekin, beraz, jo dugu Jorge Herralde editorearen tinbrea, Bartzelona goialdeko etxe dotore batekoa, udaberriko eguerdi eguzkitsu batean. Lali Gubern emazte, laguntzailer, aholkulariak ireki digu atea –zeinak, izkina batetik gero, senar, lagundu, aholkatuari oharrak egingo dizkion etengabe, izen bat hemen, data bat han–. Gonbidatuentzako egongelara pasa, eta handik gutxira agertu da Herralde, patxadatsu –beste elkarrizketa bat!–, kopaxoa eskuan; hasieran pentsatu dut ardoz betea, baina orduagatik, eta likidoaren kolore uherragatik, lasai asko izan zitekeen Martinia.

Eseri, kazetariari matrikula hartu, eta hizketaldia euskaraz ezin egitearen broma erortzen utzi ondoren, gaztelaniaz hasi du hitz aspertua, katalanera aise salto eginez, eta tartekatuz frantses, italiara edo ingelesezko esapideak, naturalki. “Maite dut hizkuntzaz aldatzea”. Momentu batez Frankfurteko li-

buru feriako edozein pasillotan gaude-la ematen du. Kosta egiten zait aurrean 50 urte luzeko esperientzia pilatu duen pertsona daukadala irudikatzea, 4.000 titulu baino gehiago publikatu dituen, askorentzat dagoeneko ahaztezina den katalogoaren eraikitzailea.

POLITIKOTIK LITERATURARA

Bost hamarkadako edizio-lana bizkar gainean, zaila da zer momentu atxikiko lukeen erabakitzea. Lehen hamarkada, argitaletxea sortu zenetik Espainiako trantsizio politikoak ekarri zuen desilusionaraino doana, kurioski, “ilusio handiko garai izan zen, baina baita zartako ugarikoa ere, zentsurarekin talka etengabe-koa” –guztira bederatzita liburu bahitu zizkieten Anagramari, horietako lau Franco hil ondotik–. “Eta halako batean lortzen



duzu liburu bat ustekabeen pasatzea, *Sobre la psicología de la incompetencia militar* (Gaitasun-eza militarren psikologiari buruz), Francoren lagun-min Muñoz-Grandes Teniente Jeneralari bidali niona". Argitaletxea garai hartan editorea baino gorriagoa eta erradikalagoa ote zen galdetuta, baietz erantzun du Herraldek, "baina editore hau zen liburu haiek ateratzen zituena, arrisku guztiak hartuta". Gogoan du Manolo Sacristan, garaiko komunista katalanen popeak, bota zion lorea; haren esanetan "Espainiako argitaletxe ezkertiarrena" baitzen Anagrama.

Egoera politikoa aldatuta, argitalextearen bizirautea bera arriskuan jarri zuen krisialdi handia ezagutu zuten: banatzailearekin arazo ekonomikoak izan zituzten, ultraeskuinak bulegoak erre-

zizkien eta batez ere liburu politikoaren salmenta jaisten hasi zen, 1977tik aurrera. "Liburu mota horren irakurleak desagertu egin ziren, egun batetik bestera ia, zer esanik ez PSOEek hauteskundeak irabazi ondotik: batzuk Indiarra joan ziren, beste batzuk ziztatzan hasi, liburu politikoak biltegian hauts hartzen geratu zitzaizkigun". Atzetik ere bazetorkion literaturarekiko joera, argitaratuak zituen Charles Bukowski, Tom Wolfe, baina liburu politikoak estalita geratzen ziren. Nolabaiteko liberazioa ezagutuko du literaturak urte haietan, eta editoreak ere bai neurri batean.

1981ean martxan jarriko duen Panorama de Narrativas, eta 1983an abiatu zen Narrativas Hispánicas bildumak dira horren adibide. Argitaletxeari egiatzko bultzada eman, eta hurrengo lau hamar-

kadatan Espainiako literatur sisteman bete duen leku zentrala eskurarazi ziotenak. Lehen, "Gallimard argitaletxearen *Du monde entier* bildumaren gisako bat", hau da, mundu mailako lehen lerroko idazleak emango dituen gaztelaniaz, azal hori koloreko identifikagarri horiekin -Planetako editoreak "sukar horia" deitzen zion-. Bertan argitaratu dira klasiko garaikide bilakatu diren obra eta autore ugari, hasieran erabat ezezagunak zirenak bazterrotan, adibidez *British Dream Team* horretakoak -Martin Amis, Julian Barnes, edota Kazuo Ishiguro Nobel sariduna-.

Bigarren bildumak azal grisaxkak baliatzen ditu, eta gaztelaniaz idazten duten autoreak agertzen. Bertan hazi dira, batzuk hasi ere, Carmen Martín Gaité, Alvaro Pombo, Soledad Puértolas edo



Rafael Chirbes –“Bere hasierak zalan-tzagarriak izan ziren”, dio editoreak-, eta berrikiago Marta Sanz eta Sara Mesa. Baita idazle latinamerikarrak ere, bes-teen gainetik nabarmenduz Roberto Bolaño txiletarra. “Autoreek eman izan didate satisfazio gehien, horiek dira edizio-gintzaren benetako protagonista, eta saiatu izan naiz gertuko harremana edukitzen, ez bakarrik profesionala; lasai asko joan naiteke haiekin koparen bat hartzera”. Horrela lortu du Anagramak Espainiako irakurketaren panorama garraikidea aldatzea, eta finkatzea, azken 40 urteotan.

EUSKAL IDAZLEAK

Segur aski gaztelaniazko argitaletxe garrantzitsuena izan dena, aldiz, katalanezko liburu batekin abiatu zen. “Kasualitatez”, bilduma bakoitzeko bina liburu baitzeuden aurreikusita, baina Cesare Pavese-ren *L'ofici de viure* (Bizitzearen ofizioa) eta Claude Levi-Straussen *Tristes tròpics* (Tropiko tristeak) iritsi ziren lehenengo, “bi liburu izugarri”, 1969ko apirilaren 23rako. Katalanezko bildumak ez zuen arrakastarik izan ordea, liburu-ko 300 ale saltzera ere ez ziren iritsi, “maisulanak izanik”. Bost titulurekin eten zen bilduma. “Badirudi katalanera itzulitako liburuak irakurtzeko jenderik ez zegoela urte haietan”. 2014an Llibres Anagrama bilduma abiarazi zuten, katalanez, autore original –Irene Solà, Mercè Ibarz- eta itzuliekin. Orain balegoke itzulpenak ere katalanez irakurtzeko prest dagoen jendea, antza.

Literatura periferiko deitzen meloia



irekita, euskaraz idatzi duten autoreen erabateko absentsia aipatu diot. “Urte haietan Bernardo Atxaga zen entzuten genuen izen bakarra. Eta hartuta zegoen, noski”. Badira euskaraz idazten ez duten euskal autoreak Anagramaren katalogoan, esaterako Marie Darrieussecq edo Miguel Sánchez-Ostiz –“hainbat liburu publikatu dizkiot, bikainak”-. Mementuan ez dut gogoratu Hasier Etxeberriak ere harreman estua zuela argitaletxearekin, ETBko Sautrela literatura saioan Paul Auster elkarrizketatzeraino –“Jorge Herralde editore handia da zinez, ez dago dudarik”, idatzi zuen Etxeberriak-. Eta ez naiz ausartu esatera euskal idazle garrantzitsu eta hala ere adiskide denak

beti izan duela amets Anagraman argitaratzea; tapa horixkak dituen Panorama de Narrativas-en, noski.

Orain arte Herralde editoreaz aritu gara, baina izen propioz hiru liburu argitaratu ditu jada, editorea idazle zapuztua dela konfirmatzen baina, 50 urteotako lanaren testigantza uzteko borondatea duela erakustera datozenak. “Tira, editorea ere idazlea da, neurri batean: gure liburuak lirarteke idazlearen hitzak, eta katalogoa nobela”. Beste liburu bat argitaratu berri du orain, *Los papeles de Herralde* (Herralderen paperak), modu ez-zuzen batean berak idatzitakoa: Jordi Gràcia saio-gileak egin duen Anagramaren historiaren alboan, Herraldek berak idatzi eta bidalitako hamarnaka esku-titz irakur baitaitezke, hartzaileak izanik idazle, beste editore, agente literario, literatura kritikariak. “Badirudi interesa piztu dutela eskutitzek, ez da izango oso ohikoa editore bat ikustea literatur jendearekin borrokan”.

Ez da oso ohikoa, ez, eta are gutxiago sistema editorialaren hermetismoa ezagututa, barne liskarrak, zenbaki kontuak, ezinikusi pertsonalak modu horretan haizatzea. Ez da oso ohikoa Herraldek Rafael Conte literatur kritikariari bidali zion eskutitzaren modukoak deskubritzea: “Irakurri berri dut, pentsa dezakezun bozkarioarekin, *El País*eko zure pope-pulpitutik nire editore lana hala definitzen duzula: ‘Anagramak literatura arinaren aldeko apustua egin du’”. Eskutitz batzuen gogortasuna gorabehera, “ez zait sekula pasa burutik inori agurra ukatzea, edo aterean bat ixtea kritika



negatiboengatik". Kontrakoa gertatuko zen, eta baten batek emango zion Herralderekiko harremanari ate-kolpea, Javier Marias idazleak esaterako, hain nabarmena izan baita bien arteko etsaigo publikoa.

EDITORE BATEN EGINBEHARRA

Markaketa lan hori, alabaina, editore baten eginbeharra ote da? Idazle bati eskatzen zaion bezala kritikaren gainetik egotea, itsusia gertatzen bada sortzaile batek kritikariaren lana itsustea, lokatz horietara jaitsi behar al du editoreak? Herraldaren gaineko mito negatiboak ere existitzen dira, noski: kontratu bidegabeak, tratu eramangaitzak, aurrerapenen xuhurkeria. Eta badago Anagramaren historia Herraldaren etsaien arabera kontatzen duenik ere: lehenengo etapan, Franco eta desilusioa izan ziren; bigarrenan, *El País* eta Carme Balcells agentea. Editore bat definitzen bada gehiago, argitaratu dituen liburuengatik baino, argitaratu ez dituenengatik, eskutitz hauen benetako balioa egon daiteke erakusten ez duten horretan.

Baina, zerk damutzen du editorea gehiago, argitaratu ez dituen liburu onak, edo argitaratu dituen liburu txarrak? "Liburu txarrak? Ze ozarkeria! Interesatu izan zaidan bakarra da liburu ez bakarrik onak, baizik eta pertinentek ere publikatzea. Uste dut ez dudala liburu onik pasatzen utzi. Egon dira publikatu ezin izan ditudan liburu onak, hori bai, eskuarki talde editorial handiek lekuz kanpoko eskaintzak egin dituztelako". Hain zuzen, paradigma aldaketa ekarri zuen 80ko hamarkadako azken urteetan enpresa-talde handiak edizioaren munduan sartu izanak. "Telebista kate, liburu denda eta abarretakoak izan ditzakete talde horiek beren baitan, eta idazle batengatik astakeria ordaintzeak ez die minik ematen ekonomian. Baina hori ere gainditu genuen".

Baten batek ikus dezake Anagrama argitaletxe handi gisa, are orain, 2014an Herralderek saldu zizkionetik bere akzioak Italiako Feltrinelli taldeari. "Jabez aldatu bai, baina independente jarraitzen duen argitaletxea da Anagrama; beti bezala, baina zuzendaritza berri batekin". Argitaletxearen politika izan omen da txikia-goengana arrantzan ez joatea: "Editore txiki bakar batek ere ezin izango du esan autore bat kendu diodanik". Jarraitzen du, beraz, editore txiki, fakturazioertain eta argitaletxe literario handi izateko bokazioarekin. Nahiz editorea bera ere

aldatu den, erretiroa hartu baitzuen Herralderek 2017an. "Silvia Sesé nik aukeratu ahal izan nuen, eta oso pozik nago. Harreman ezin hobea dugu, asko hitz egiten dugu, gauzak komentatzen dizkit, nik hari. Antzinako totem bat naiz orain Anagraman".

Azken urte honetan batez ere irakurri egin duela aitortu digu, asko, "agian inoiz baino gehiago". Memoria liburuak, oroitzapenak, editore, argitaletxe, idazleena; "kuxkuxero aseezina naiz". Anagramako liburuak ere bai, noski. Ez du haria galtzen. Batzuek diote argitaletxea ez dela jada lehen zena. Garai bateko influentzia eta izpiritua galdu dituela.


Gaur egunean errespetagarri, zuzen eta neurritsua denaren erdigunean dagoela, garai bateko izpiritu kritiko, zirikatzaile, bide-urratzailea galduta. Beste argitaletxe batzuek betetzen dutela orain Anagramak hamarkada luzez bete izan duen leku hori. "Auskalo. 50 urte betetzea eta dagoen bezala egotea jadanik sekulako arrakasta iruditzen zait, argitaletxea bihar bertan pikutara joango balitz ere". Elkarrizketa bukatutzat eman eta Herraldaren etxea utzi aurretik, hitz egin dugunaren emaitza gaztelaniaz bidaliko diodala esan diot. "Ez duzu zertan. Fidatzen naiz. Hitz egingo dugu gero, beharrik balego". ●





LIBURUA

Danbor hotsa atzera ere



ANTOLOGIA

EGILEA: CHRISTOPHER OKIGBO
ITZULTZAILEA: KARMEN
IRIZAR SEGUROLA

MUNDUKO POESIA KAIERAK,
SUSA, 2021

IGOR ESTANKONA

Unibertsitate garaia, Bilboko Zabal-gunea, sukurtsal artean, bigarren eskuko liburudenda baten argi ahula. Bazter batean bazterrekoenak: *Afrikar poeta garaikideak* (gaztelera, Biblioteca Jucar). Niretzat, urte askoan, itsasargi baten antzekoa. Agostinho Neto, Noemia de Souza, Wole Soyinka, David Diop, Jacques Rabemananjara... eta danbor baten durunda beste piztia guztien oihuminen gaineretik: Christopher Ifekandu Okigbo. 1932an jaio zen Ojoton (Nigeria), Igbo eskualdean. Ez Nigeriarik, ez Kamerunik, ez Beninik, ez ezer ez zegokeen kolonizaziorik egon izan ez balitz (Euskal Autonomia Erkidegorik ere ez, esan dezagun bidena-bar), eta hori dela eta bere herria ez da mapa politikoetakoa, ezpada oihan, leku sakratu eta ur korronteetakoa: "Ama

Idoto, biluzik nago/ zure aurrean zutik/ zure presentzia urtsuaren aurrean,/ ni, etxekalte hau// olio-leka zuhaitz baten kontra etzanda/ zure elezaharrean alderrai". Ez alferrik, Christopher Okigbo 1967an hil zuten, Biafraren aldeko borrokan, Nigeriaren kontrako gerran soldadu ari zela.

Karmen Irizar Segurolak itzulpen soil-a egin du poetarena. Zailena egin du, alegia; Okigboren indar telurikoa ekarri du euskarara modu zuzen eta egiazkoan. Berriro diot: aspaldiko irakurraldiak berdetu zaizkit, Afrikako poesiaren purutasuna eta zeruen infinitua baitakartza liburu honek, eta Jainkoak arte-gatu egiten ditu, oroitaraziz gu ez garela deus urtaroen eta landareen izerdiaren aldean. Guk, animalioak, luma dugu idazteko. Christopher Okigbok gerizpee-

kin hitz egiteko danborra asmatu zuen, nahiz eta ingelesez egin (igboera ere bai, arean): "Txori magikoek tximistargiaren miraria lumetan..."

Eurozentrismoaren eta sustraien artean harrapatua, Okigbo Afrika egiten ari den bide luzearen beste adibide bat da. *Elegy for Alto* ("Altorentzat eresia") izan zen bere hil-buruko testamentua, eta oraindik kantatzen dute bere herrian: "Hemen dira politikariak generadoreen, morteroen burdinazko dantza honetan..."

Bigarren eskuko liburudendan beraz, zerk eroan ote ninduen bazter hartara, bazterrekoen txokora? Oraindik azken berba esan ez duen Afrikako kontinenteko ahotsak izango ziren beharbada. Edo osterantzean deltako igel handiak, ai! ei!, ilargi-min. ●



MUSIKA

Verde Prato edo XXI. mendeko neokostunbrismoa

XALBA RAMIREZ

Aurelio Arteta eta XX. mende hasierako euskal kostunbrismoaren ildotik, autoerretatua egin du Ana Arsuagak (Tolosa, 1994) bere azken lanaren azal eta kontrazalerako. Arsuagaren proiektua da Verde Prato eta *Kondaira eder hura* (2021, Lago/ Cráter, PlanB Records) diskoan istorio enigmatikoa kontatzen du, urratsez urrats, ikuspegiz ikuspegi, detaileetatik eraikiz historia.

Ihes egin duen pertsonaia nagusiaren istorioa kontatzen da, bere ingurukoan ahotsetatik eraikia: bere amarena, abandonatu dituen lagunena, ezagutu duen neska batena... Hiri batera bizitza berri baten esperantzaz doala irudi lezake, baina tragikoa da ihesaldia. Doinuak ere laguntzen du aura ilunean, liturgikoak baitira Arsuagak sortutako melodiak, belaunaldiz belaunaldi istorio hau gogo-

ratzeko eginak balira bezala.

Erabiltzen dituen melodiak euskal tradizioarekin bat egitera garamatza, bertso tankerako doinuetan. Herrikoitasuna berrasmatzeko gai da Arsuaga erabat originalak diren pieza sotilak eskainiz. Itsaskorrak eta sarkorrak. Eta gainera elegante eta ederrak.

Istorioaren enigma nagusia protagonistak atzean utzi duen egia da. Zergatik egiten du ihes? *Aitaren kanta*-n berak ere ihes egin zuela aitortzen baitu Kanye West berak sinatu nahiko lukeen piano oinarri indartsuaren gainean. Arrazoi bera ote XX. mende hasiera hartan edo XXI. mende arraio honetan ihes egiteko? Gai al gara egiatik ihes egiteko? "Ea gizonok ihesa dugun bide dio amak".

Borroka bat eta heriotza entzuten ditugu *Anaien kanta*-n eta *Neskaren kanta*-n, diskoa ixten. Amaiera-amaieran,



KONDAIRA EDER HURA VERDE PRATO

LAGO/CRÁTER,
PLANB RECORDS, 2021

reggaetoi erritmoa "*papi, tienes algo que no tiene nadie*". Orduan, diskoa atzetik aurrera jartzeko tentazioa izan dut –egia horren bila–, eta otu zait atzetik aurrera entzunez gero istorio ezberdinak kontatzeko gai dela. Batean hildakoa dugu pertsonaia, bestean hiltzailea. Bat ihesarekin hasten da, bestea ihesarekin bukatu.

Eta ez du zertan, baina gustatu zait istorio ez kronologikoa. Herrikoitasunaren dohainetako bat baita, kontakizun moralizantea egiteaz harago, tartean bestelako irakurketak ezkutatzeko gaitasuna eta asmoa.

Ahozkotasanak bere lekua erabat galdua duen gizarte honetan, irudi azkarraren bitartez iragankor zabaltzen dira kultur artefaktu guztiak, plataforma digitalen iragazkietatik. Verde Pratok beste patxada baten bitartez sakonagoa den arnasa ematen digu, herri kontakizunaren balioa azpimarratuz. Kostunbrismoa ez da axolagabekeria. ●



MARIA MURIEDAS



Hiria bizi

INÍGO BASAGUREN-DUARTE

HARRIA ETA BIDEA LANETIK HARTUA

Deskonfinamendu garaian Bilboko udaletxeko balkoian “Aurrera Bilbo” zioen pankarta bat eskegi zuten, kalera ateratzen ginen lehen egunetan hiritarrok adoretzeko asmoarekin. Horren apaltasunak eta letra grisek adoretu baino errautsen artean ibili behar genuela transmititu zidan. Bilbok eremu mortua ematen zuen eta guk, hiritarrok, hondakinen artean mugitzen ikasi behar genuen. Egoera honek hiria birpentsatzeko beharra jarri du mahai gainean eta hori izan da Zinebi-k bilatu duena *Bilbao Aurrera* deialdiarekin. Hautatutako sei lanak aurkeztu dituzte bi saiotan.

Zer gertatuko da hiria desertu bihurtzen denean? Gure baitan bildu eta sormenari bide emango diogu, magiaren unea izango da edo, agian, bakardadeak akabatuko gaitu? Zer da hirian bizitzea, baina hiria ezin bizi izatea? Horiek dira Paula Gomezek eta Aitane Goñik planteatu dituzten galderak beraien *Harria*

eta Bidea lan eder eta dotorean. Gazte bat autokonfinatuko da Bilboko etxe batean bere gorputza bizi eta sentitzeko helburuarekin. Gorputzaren kontzientzia hartzeaz gain, autokonfinamenduak bakardadearen eta heriotzaren kontzientzia emango dio protagonistari. Gorputza izango da bere territoria, hor marraztuko dira kaleak eta eraikinak. Bilbo hondo-irudia izango da, besterik ez. Hiria are desertikoago bihurtuko da, desagertu arte. Ez da hiririk izango, ez biztanlerik. Soilik heriotza. J.G. Ballard idazle britainiarrek etxe-orratzen arriskuak ohartarazi zuen *High-Rise* eleberrian eta badirudi bi egileek ideia hau hartu dutela oinarri: porlanezko hormen artean konfinatuta egoteak gizagabetuko gaituela.

Saioko bigarren laburmetraia Olaia Nogalesek zuzendutako lan kolektiboa izan zen, Miren Agur Meaberen olerki batean oinarrituta eta 50 lagunen ekar-

AURRERA BILBO ZINEBI 2021

NOIZ: apirilak 8

NON: Bilboko Alondegia

penekin ekoiztutakoa. Partaideek hiriko kaleei argazkiak atera zizkieten eta jasotako materialarekin hiritik ibilbide bat osatu dute. Errailen gainetik egindako jite psikogeografikoaren modukoa izan da emaitza. Egileek botatako sokari lotu eta beraiek aukeratutako txokoetatik eramaten du ikuslea.

Azken lana Larraitz Zuazok eta Ane Ro-taetxek film laburretik ordubeteko dokumentalera eramandako lana da. Lau artistak (Gari, Erlea Maneros, Katixa Agirre eta Ainhua Artetxe) konfinamendu eta pandemia egora nola bizi izan duten aztertuta aurretik dituzten erronkei nola helduko dieten planteatzen da bertan.

Pandemia osteko hiria birpentsatzea zaila bezain beharrezkoa da. Zaila da do-lua oraindik bizitzeko astirik izan ez du-gulako, Katixa Agirrek esan bezala. Eta beharrezkoa da, hirian bizi baino, hiria bizi behar dugulako, Paula Gomezek eta Aitane Goñik adierazi bezala. ●



Hitz gezidunak

Gaia: Nafarroa Behereko herriak

1 HARRIETA	MIKROMETRO 1	EZKAI MOTA DU, HAIEI	AUTOBUS MOTA ROENTGEN	EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA PROTOZOO BIZKARROIA	2 MARIANNE CASAMANCE
	ERREPIKA- TUZ, BARRE FETU		OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEA EUSKAL HERRIA		
2 PISU NEURRI	3 AREA		TRENETAKO BAGOI BEREZI KANADAKO HERRITAR	HERDOIL NAFARROAKO HERRIA	DUDARIK GABEKOA AUTOMOBIL- LAK
NEWTON GELDI!, ALTO!	EGIAZKI, SEGURUENIK ZEIN TOKITAN		ADISKIDETU MERTXIKA	ERORI ADITZAREN INFINITIBOA LARRUAZALE- KO GAITZA	
ZERBAITEN GORENGO ALDE ETORRI		LUZE, GOI EPOPEIARI DAGOKIONA	USO AR ARROKA BOLKANIKOA	ZIKINTASUNA OINARRIZKO EDARIA	EZ EME ANPEREA
ORREAGA ARANBURU		PILOTAN JOKATZEKO TRESNA 4			ENEKO BIDEGAIN
	DANTZALEKU BEREZI PENTATEUKO				
3			BOKAL ERREPIKA- TUTA		4

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9 RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

7		6			4			
4			8					2
	8		2			5		
	1		9	6				
	5		3		4		1	
				8	1		2	
		3			8		5	
2					9			4
		8				9		7

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Zerbeitetarako garai egoki.
2. Zuzeko ontzi.
3. Ugaztun karraskaria.
4. Bururatuak.
5. Gauza, zer.

EBAZPENAK

5	4	8	1	3	2	6	7	9	7
2	7	1	6	5	3	8	6	5	4
9	6	3	4	7	8	2	5	1	6
3	9	4	7	8	1	6	2	5	3
6	5	7	3	2	4	8	1	9	6
8	1	2	9	6	5	7	4	3	8
1	8	9	6	2	4	7	5	3	6
4	3	5	8	9	6	1	7	2	4
7	2	6	5	1	3	4	9	8	7

5X5:

Maria Luz Mangado

EGIPTOLOGOA



MUNDU OSOTIK EGIPTORA BEGIRA

“Historia ikasi nuen Nafarroako Unibertsitatean, eta Bartzelonan jarraitu nuen gero, han egin nituen masterra eta doktoretza. Gerora hainbat tokitan jarraitu dut ikasten: Italia, Paris, Ameriketako Estatu Batuak, Belgika, Egipto, Danimarka... Tarte luzeak igaro ditut Egipton indusketetan, urte batzuetan lau aldiz ere izan naiz. Azkenaldian Jerusalemenean ibili naiz ikasten. Bi alorretan aritu naiz batez ere: Antzinaroko ardoaren kulturarenean, eta animalien momiei buruzkoan. Nire historia pertsonala oso lotuta dago nire bizitza profesionalarekin, ordu asko eskatzen baitzikit lanak, eta denean eragiten du”.

“Zerbait aurkitu arte beti ibiltzen gara fikzioaren eta errealitatearen arteko marran”

Orain dela 3.400 urte inguru eraikitako hiri baten arrastoak aurkitu ditu arkeologo talde batek Luxorren, Egipton, Nilo ibaiaren ertzetako batean. Amenhotep III faraoiaren garaiko hiria da (k.a. 1390-1352), haren semeak, Akenaton faraoiak hiriburu berri bat sortzeko atzean utzi zuena. Aurkikuntzak haustura politiko horren arrazoiak azaltzen eta orduko jende arruntaren eguneroko bizitza ezagutzen lagun dezakeela uste du Maria Luz Mangadok (Iruñea, 1967).

ANDER PEREZ ARGOTE **JOSU SANTESTEBAN**

Nola iristen da bat egiptologia izatera?

Niri historia eta arkeologia gustatzen zitzaizkidan. Ikasten ari nintzela, Egiptorako bidaia bat oparitu zidaten gurasoek. Asko gustatu zitzaidan, eta espezialista asko ezagutzeko aukera izan nuen. Bide hori jarraitu nuen, kanpoan ikasiz, eta gero eta gehiago zaletu nintzen.

Urte eta kilometro asko daude Iruñetik Antzinako Egiptora.

Baina hain da handia Egiptoren aberastasuna... Banekien ikasketa zaila zela, urte askotakoa, besteak beste hainbat hizkuntza menperatu behar direlako, koptoa, hieratikoa... Uste dut ikasketetarako zaletasunak lagundu didala. Asko gustatzen zait indusketetako lana, eta baita museo eta artxi-boetakoa ere.

Zer du Egiptoko historiak hainbeste liluratzeko gaituena?

Bere historian bada handitasun bat, politikan, artean zein kulturatan, eta utzi diguten arkitektura ondarea ikusgarria da. Hainbat arlo garatze-

ko gai izan ziren, arkitektura, eskultura, astronomia... eta horrek denak utzitzeko oinordetza handia da, Mediterraneoko kulturetan, eta bereziki mundu greko-erromatarrean. Monumentaltasun hori, paisaia horretan kokatua, argi horrekin, Nilo ibaiarekin... Edertasun oso berezia du.

Oraindik harritzen zaituzte Luxorrekoaren gisako aurkikuntzek?

Niretzat normaltasunaren barruan sartzen da, hain da beti aparta, edozein emaitzak ematen dizula zerbait. Egia da kasu honetan hiri oso bat dela, eta horrek asko lagunduko digula jendearen eguneroko bizitza ezagutzen. Horrek liluratzeko gaitu, beti gabiltzalako erregeen bizitzekin bueltaka, baina jende xehearen bizitza ere aparta da. Gizartearen antolaketari buruzko informazio asko emango digu.

Zer ikusten du egiptologo batek harriak dauden tokian?

Etxeak berreraiki daitezke, eta espazioa nola banatzen zen aztertu. Ne-



"Nekropoliak asko ikertu dira, baina hiriak ez dira hainbeste aurkitu. Heriotza ezagutzen dugu ongien, aurkikuntza honek bitzta ulertzen ere lagunduko digu".

kropoliak asko ikertu dira, baina hiriak ez dira hainbeste aurkitu, eta honek argi asko emanen du. Heriotza da ongien ezagutzen duguna, baina honek bitzta ere ulertzen lagunduko digu. Antolaketa soziala eta ekonomikoa aztertzeak lagun diezaguke aro batzuen handitasuna –eta beste batzuen gainbehera– ulertzen. Literaturak informazio asko ematen digu, baina arkeologiak berresten duenean zoragarria da.

Tutankamonena eta gero, Luxorrekoa inoizko aurkikuntzarik garrantzitsuena dela esan da. Hala da?

Aurkikuntza guztiek, elkarrekin, eskaintzen dute zerbait. Bakoitzak, berean aurrera egin ahala, beti uste du berea dela aurkikuntzarik handiena. Egia da Tutankamonen aurkikuntzak historia berezia duela. Liluragarria izan zen, eta oraindik ematen du zeresana. Oraingo hau garai bertsukoa da, eta lagunduko du Tutankamonen historia argitzen ere. Lagunduko baitu jakiten zergatik alde egin zuen handik Akenatonek [Tutankamonen aitak]. Egiptoren historiako une bikaina da, baina oraindik ilun samarra.

Irits daiteke aurkitutako arrastoetatik halakorik argitzera?

Argi dago hiri abandonatu bat dela, haiek estali zuena. Kontserbazio egoera bikainean aurkitu dute, eta ez da ohikoa. Ikerketak esanen du; badakigu haustura bat izan zela, Akenatonek abandonatu zuela, ziurrenik Tebaseko apaizen gehiegizko botereagatik, eta hiri berri bat fundatu zuela Amarnan, nagusiki Aton jainkoari gurtza egiteko. Arlo erlijiosoan ongi dokumentatuta dago, baina arrazoi historiko-politikoak ez dago oso argi. Eta harrigarriena da haustura egonda ere jarraitu zuela aro distiratsua izaten, ez zen gainbeherarik izan. Interes handia dago, Egiptoren historian giltzarri delako.

Kasualitatez aurkitu omen dute.

Tutankamonen hileta-tenpluaren bila ari ziren, eta ustekabean aurkitu zuten. Baziren berri batzuk, literaturan eta testuetan, baina zerbait aurkitu arte beti ibiltzen gara fikzioaren eta errealitatearen arteko marran. Poz handia da arkeologentzat.

Horrek erakusten du zenbat dagoen oraindik aurkitzeke.

Ezin da inoiz aterik itxi: bihar faraoi baten hilobia aurkitzen badute, atzora arte hainbeste faraoi genituen, eta gaur bat gehiago. Egiptoko historiaren baliorik handiena da jarraikorra izan dela, ez baztertzailea. Kanpoko herriek Egipto inbaidu dutenean ere bere egin dute hango kultura, haren handitasunaz konturatuta. Tolomeoak eta erromatarrak ere izan ziren horren kontziente. Horri esker dakigu gaur dakiguna.

Baina oso herri espoliatua ere izan da. Itzuli beharko lirateke pieza guztiak Egiptora?

Gai zaila da, zoritxarrez antzinako kultura guztietan gertatzen dena. Ondarearen bakesa ez zen berdin baloratzen orain mende bat: egin zena gaizki ikusia dago egun, baina orduan, agian, pieza batzuk salbatzeko balio izan zuen. Argi dago, denaden, egindako batzuk gehiegizkoak direla, eta ulertzen dut pieza batzuk erreklamatzeko. Uste dut kasuan kasu aztertu behar dela. XIX. eta XX. mendeek argi-ilunak dituzte, eta orduan ere arkeologo batzuek borroka egin zuten ondarea Egipton gera zedin eta beste batzuek itsasontzika ateratzen zituzten piezak herrialdetik. ●



BIDALI ZURE HARRIKADAK: BERANDUEGI@ARGIA.EUS

Sarri berriz Kubara joan da, ongi etorria emateko Twitterren erabilitako poesia merkea dela-eta



Iurretara heldu, ilobak Twitter izeneko gauza ezezagun bat erakutsi, 15 minutuz irakurri, lehen biribilgunea hartu eta Kubara itzuli da Joseba Sarrionandia geldialdirik egin gabe. “Jaso ditudan zientoka mezu ustez hunkigarriki poetikoez gain hartu naute”, dio, mojitoa eskuan, lasai. “Ez nekien horrelakoetan nor den orok zer edo zer esan beharra duela, zenbat eta modu ederragoan hobeto, eta okerrena ez da hainbatek erabili duten poesia merke hori...”, azaldu digu. Zumaiako Eroski

bidaia agentziak antolatatu duen “*We say Sarri Sarri, and it’s beautiful*” moduko tour turistikoetz kezu da Iurretako influentzia. Sarri bertatik bestera gozatzeko eta ukitzeko ‘autobusa+hotela+antzezpena+pintxo-mojitoa’ pakete mordoia saldu dute egunotan. “Jon Maiak egingo ditu gidari-lanak bozgorailua hartu eta azalpenak emanaz honetaz eta hartaz, eta horrek jende asko erakarri du”, esan digute agentziak. Eta gero jarraitu dute hizketan Sarrik berriro alde egin izanak duen xarmaz. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Txiste antropologiko bat



All cipayos are beautiful



“Bihotzez dinotsuet, AHT beharrezkoa da munduan bakea lortu eta gosea amaitzeko”



“ETAren errua da munduan bakerik ez egotea eta Afrikako umeak gosez akabatzea”, hasi du prentsaurrekoa Izaskun Bilbao euro-parlamentariak. “AHTri hainbesteko egurra eman ez balio... Ezinbesteko azpiegitura da mundu osoan justizia ezarri eta klima aldaketa borrokatzeko, baina oterotarrek tematurik jarraitzen dute. Duela hamabost urte bukatu izango genuke lau sosen truke eta begira orain...”

Bihotzarekin planifikatu genuen AHT, eta oposizioak gezur eta irainekin erantzuten gaitu. Min ematera doaz, David Seco bezala *El Conquis*-en. Baina ez dugu etsiko, 2024rako bukatuko dugu, eta Abantoko estazioak plazer handiz hartuko ditu Eurokopa ikustera datozen milioika zaleak. Umm, eeee, ez, hori azkenean ez, emmmm, bo, beste zerbait wapu-wapua asmatuko dugu”. ●

INPRENTA
Offset eta digitala

**DISEINU
GRAFIKOA**

DISEINU
EDITORIALA

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

*Txikitik eragiten
Komunitatea zaintzen
Bidea eraikitzen
Aurrera!*



**ALDIZKARIAK
ESKU-ORRIAK
KARTELAK
LIBURUAK
EGUTEGIAK
KATALOGOAK
AGENDAK
KOADERNOAK
KARPETAK
LOGOTIPOAK**

www.**antza**.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160

LASARTE-ORIA

Tel. 943 370 738 · info@antza.eus

Artikulu hauek erositu
ekarpen ekonomikoa
egingo diozu

**Bilboko Mbolo Moye
Doole** elkarteari.

Atera aldarria kalera
euskaraz eta wolofez!

24€



8€



15€

Eskaerak egiteko:

943 37 15 45

argia.eus/azoka